

## BIDEAN EZ GERATZEKO

‘Bizitzaz blai’ egitasmoa abian da, errepideko istripuak saihesteko eta gazteengan abiadurarekiko lilura apaltzeko 20

“Badakit beti alboan izango dudala”

Mercedes  
IRAKASLEA ETA  
GAES-EN DUTOR



Silvia | OHARRI OPIA 2017ko ERREPIDEAN KIDEGARIA

ENTZUMENA  
DOAN  
aztertuko dizugu

JEREZ  
CAPITAL BRASSERIE DE  
MOTO CYCLISMO  
www.jerez.es

[www.gaes.es](http://www.gaes.es)

Foruen Ibilbidea, 8  
Tel.: 943 15 03 95  
azpeitia@gaes.es  
AZPEITIA



**GAES**  
Entzumen Zentroak

# MILAR LARRAMENDI

Larra<sup>III</sup>endi  
Sukalde Gunea



Smart Retail sistema berria



**AZKOITIA** Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16  
Tel. 943 85 18 97 [www.milarlarramendi.com](http://www.milarlarramendi.com)



Astelehenetik ostiralera:  
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00  
Larunbata: 9:30 - 13:00



## Aiertza Autoak

**EuroTaller**



ZERBITZU  
AZKARRA



MEKANIKA



ELEKTRIZITATEA



TXAPA ETA PINTURA



INYEKZIO  
ELEKTRONIKA



KLIMATIZAZIOA



IAT AURREKOA

- Mantedimendua eta elektronika
- Mota guztietako autoen konponketak
- Auto berriak eta bigarren eskukoak

Behar duzun  
konfiantzazko tailerra

AIERTZA CITROËN ETA EUROTALIER ZERBITZU OFIZIALA

**AIERTZA AUTOAK**

943 811 915 - Azpeitia

# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 193.a (2017ko apirila)  
**Urtea.** XVIII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685780412 /  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilero  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** Maialen Etxaniz  
**Webgunea.**  
[www.uztarrria.eus](http://www.uztarrria.eus)

**Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak** (erakunde publikoak)



**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**Oharra.** Uztarrriak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

## |||2017KO APIRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?|||||||



### iritzia

**Inkesta.** Hartuko al duzu parte Aste Santuko ekintzetan? **13**

### mamia

**Elkarrizketa.** Xabier Aldalur Dendarteaneko eta Bertaneko merkataritza teknikariarekin solasean **04**  
**Klik!** Udaltzaingoen egunerokoa iruditzen **16**  
**Herritik hezten.**

Azpeitia Herri Hezitzailea proiektua abiatzera doa **26**

### jakiteko

**Gogoratzen?** Azpeitiko Zine Klub Elkarteak 'Mateo Txistu' filma estreinatu zuen, duela 30 urte **34**



**Ba al dakizu zezen Beltz Elkartearen Youtubeko kanalak 200.000 ikustaldi gainditu berri dituela?** **Uztarrria**

## Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

**Herri aldizkariaren gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

**1.060** bazkide **30** euro dira urtean. **gara** Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



**Liburuxka biografikoak, oraingoz.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

# XABIER ALDALUR

merkataritza teknikaria

## “Dendariak sarean egotea ezinbestekoa da”

Interneten aroan bezeroen erosteko ohiturak aldatu izanak erronka berriak ekarri dizkie merkatariei.

Gakoa “presentzia digitala” dela dio. 📝📷 Ainitze Agirrezabala

**G**ipuzkoako merkataritza eta ostalaritza elkar- teek osatzen duten Dendarteaneko eta Bertan Azpeitiko Merkatarien Elkarteko teknikaria da. Herriko saltokiek “momentu hobeak” izan zituztela adierazi du, baina garai berrietara egokitzen asmatzen duenak “aurrera” egingo duela gaineratu du.

**Dendarteaneko eta Bertaneko teknikaria zara. Zer da zure egitekoa?**

Dendarteanen 24 herritako elkar- teak daude, eta haiek egiten diz- kiguten kontsultei erantzutea eta merkataritza sustatzeko laguntza ematea da nire lana. Bertanen, berriz, 112 bazkide daude, eta el- karteko batzordearekin biltzen gara, herria dinamizatzeko zer

ekintza antolatuz aztertze eta jendeak herrian eros dezan bult- zatzeko.

**Zer-nolakoa da herriko denda txikien egoera?**

Egoera ez da ona, garai hobeak izan zituzten. Izan ere, ekonomia krisiaz gain, Interneta medio, egundoko aldaketak eman dira kontsumitzaileen erosketa ohitu- retan; egoera erradikalki aldatu du. Oro har, esan daiteke denda txikien kalterako izan dela, baina garai berrietara egokitzen asma- tzen duenak aurrera egingo du.

**Azken urteetan zenbat sal- toki itxi eta zabaldu dira he- rrian?**

2013an 260 saltoki zeuden eta iaz 249, baina Alde Zaharra in- darberritzeko ahalegina egiten ari

### |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1990eko martxoak 14.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizi tokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Merkataritza teknikaria.

da Udala, eta ondorioz gero eta lokal huts gutxiago dago.

**Internet bidezko salmenta ereduari dagokionez, zer al- daketa ekarri du horrek?**

Lortu behar duguna da hasieran mehatxua zena dendariak aukera bezala ikustea. Gaur egun, batik bat arropa eta teknologia sekto- reetan, edonor ausartzen da In- ternetez erosten. Hor arazo nagusia da sarean prezioa dela lehia- tzeko bidea, eta denda txikiek di- tuzten marjinekin askotan zaila da. Denda txikiek presentzia digi- tala izanez, Interneteko dende- k eskaini ezin duten gertutasuna

eta kalitate zerbitzura bideratu behar dute eskaintza, sektoreko elite bihurtuz.

**Presentzia digitala diozu.**

**Egun erakusleiho garran- tzitsua dira sare sozialak.**

**Nola kudeatzen duzue hori?**

Sare sozialak, batez ere, kudea- tzen ditugu elkarteko ekintzen berri emateko. Egund, bezeroa etengabe dago Internetera ko- nektatuta, sare sozialei so, eta dendariei azaltzen diegu sarean presente egotea eta hori indar- tzea ezinbestekoa dutela. Zentzu horretan, formazio ikastaroak an- tolatzen ditugu, adibidez, sare sozia- len inguruak.

**Merkatariei zuzendutako ikastaroak zer eratakoak dira? Nolako harrera dute?**



Borondate handia dute, baina konplikatuak da dendariekin ikastaroak egitea, ordutegiagatik, batik bat. Askotan saiatu gara sare sozialen inguruko saioak antolatzen, eta azken urtean lan dezente egin dugu komunikaziorako datu baseak sortzen eta horien erabileraren inguruko formazioa eskaintzen. Izan ere, gaur egun oso garrantzitsua da denda bakoitzak bere bezeroen datu basea osatzea bezero horiek fidelizatzeko eta beraiekin etengabeko harremana izateko.

**‘Hemenbuy’ plataforma digitala sortu zenuten, herrian bertan erosketak egiteko. Internet ‘arerio’ izatetik ‘aliatu’ izatera pasatu al da?**

*Hemenbuy.comen* kasuan denborak erakutsi du jarri zela erreminta potentea hura erabiltzeko prestatuta ez zegoen jendearen eskuetan. Sarean orrialdea elikatzeak eta eguneratuta izateak lan handia du, eta dendariekin ez zuten ez denborarik, ez formazio egokirik hura gestionatzeko. Ez da asmatu plataformari etekina ateratzen, eta orain ari gara aztertzen beste saiakera bat egin edo bertan behera laga webgune hori.

**Azpeitia txartela Bertan fidelitasun txartela ordezkatzera etorri da. Zer xederekin?** Prozesua logikoa da. Lehenbizi merkatarik elkarteko fidelizazio txartela ateratzen da erabiltzaileei deskontuak, zozketetan parte hartzeko aukerak... eskaintzeko. Zerbait gehigarria eskaintzeko, ordainketak egiteko eta dirua ate-

ratzeko balio duen Visa txartela izateko jautzia eman dugu. Horrez gain, udalarekin hitzartuta, herri-tarrek beste funtzio batzuetarako ere erabil dezakete: liburutegiko nahiz kiroldegiko bazkide txartel bezala, esaterako. Lortu nahi dena da jendeak bere betiko Visa gisa Azpeitia txartela erabiltzea. Eta aurrera begira udalaren asmoa da txip bidezko bosgarren edukiontzia txartel horrekin erabili ahal izatea.

**Kulturaz Bertaneko kide da. Zuen arteko barne lanaren emaitzak zer onura ekarri dizkie azpeitiarrei?**

Bertanek hilerio bi lagunentzat afaria zozkatzen du elkarteko jantxe desberdinetan, eta kanpaina horren harira egin zen bazkide Sanagustin jantxea lehenbizi, eta kooperatiba gero. Bertan Kulturaz laguntzailea da, eta elkar-lan horren onuzer gozatzen dute merkatarien elkarteko bezeroek. Adibidez, Sanagustinek antolatutako ekintza guztietarako sarre-rak zozkatzen ditu Bertanek Facebookeko jarraitzaileen artean. Moda desfilea ere Sanagustin kulturagunean egiten dugu.

**Zergatik erosi behar dute azpeitiarrek herrian?**

Hori da norberak norbere buruari egin behar dion galdera. Herriko kaleei bizirik eusteko eta herri desertu bat ez izateko sentsibilizatu eta herrian erosi beharra dago. Bezero bezala esango nuke herriko dendak kalitatezkoak direla, eta dendariak oso profesionalak. Eskaintza zabala dago herriko saltokietan, kanpora joan beharrik izan gabe.

**Zer erronka dituzue aurrera begira?**

Hezkuntza arloan asko dugu egiteko. Gaur egun, herrian erosteko sentsibilizazioa duen bezero profila da adinean aurrera doana, eta bezeroaren zaharkitze hori ez da batere positiboa. Zentzu horretan, gazteekin eta ikastetxeekin lan asko dugu egiteko, txikitatik konturatu daitezzen herrian erosteak duen garrantziaz.\*

“Lortu behar duguna da aukera bezala ikustea mehatxua zena”

“Herriko kaleei bizirik eusteko herrian erosi beharra dago”

# Seinaleak

**A**zpeitiarrak bi multzotan banatzen gara azken urteetan. Alde batetik, multzo handiena dena, Danona aurreko biribilgunearen autoaren kontrola galdu dutenak daude. Beste aldetik, biribilgune horretan autoa zuzen eramatea lortu dutenak daude. Egoeraren larritasunarekin oharturik, arriskuaz ohartarazten duten trafiko seinaleak jarri dituzte biribilgunearen inguruan, besteak beste, 40 jartzen duen seinalea. Seinale horiez gain, pintura bidez makalago joatera behartzen gaituzten marrazkiak egin dituzte asfaltoan. Baina nork begiratzen die seinaleei? Inor oztopatzen al du pintura zuriak?

Loiolara joateko bidean, azken aldian, jende gehiago dabil laneko txaleko horiarekin korrikako zapatilekin baino. Azpeitiko bazter askotan ari dira hobekuntza lanak egiten, behinik behin, intentzio horrekin; alegia, hobetzeko. Ez da erraza elkarbizitza obrekin, zeren eta zarata ateratzen dute, zikinkeria pilatzen da eta bide laburrena izan litekeena ezin da erabili. Azken hori da gakoa korrika ibiltzen diren askorentzat, eta, azkarrago joate aldera, hala erabaki zuen herriko korrikalari ezagun batek: bidea mozteko obrako seinaleei kasurik egin gabe aurrera egitea. Jada iluntzen hasia zen, beraz, ez zen askorik ikusten zuhaitzen gerizpean. Obran zehar korrika zihoala, ustekabean, korrikalariak espero ez zuen sare handi batekin tupust egin zuen. Sarea eta korrikalaria lurrera erori ziren ziplo, eta, ondorioz, atletak bi zulutxo egin zituen izterrean.

Oroitzen naiz beste batean, urte batzuk igaro diren arren, Esklabetara nindoala eskolara orduan ere berandu. Nire aurretik, hura ere berandu, beste gazte bat zihoan presaka. Garai hartan Loiola Bideko espaloia konpontzen ari ziren eta ingurua hesiz itxita zegoen. Eskolara lehenbailehen iristeko intentzioarekin nire aurretik zihoan gazteak hesia gainetik pasatu eta artean langilerik ez zegoen obran zehar egin zuen aurrera. Euri asko ari



|||||||egoitz arruti|||

|||Azken ordurako uzten dugu dena, azken dantza horretan oro konpontzea ezinezkoa dela jakin badakigun arren

zuen goiz hartan eta, ondorioz, bazter guztietan putzuak zeuden. Putzu horietako batetik pasatzen hasi zen gaztea, bat-batean, eskuineko hanka belaun pareraino zulo batean sartu zitzaion arte: aterkia jausi zitzaion, prakak eta zapatilak busti eta eskuineko eskuan zein belaunean min hartu zuen. Ondoren, ingurura begiratu eta duintasun apur batekin bertatik ateratzen saiatu zen, baina beste pausu bat ematen hasi zenean ezkerreko hanka sartu zitzaion beste zulo batean: aterkia txikitu zitzaion, prakak eta zapatilak erabat busti zitzaizkion eta ezkerreko eskuan eta belaunean ere min hartu zuen. Egoera ikusita erabaki nuen bere atzetik igarotzea, baina putzua sahiestea aldamenetik.

## Egin kasu seinaleei

Horrelakoak gara tamalez; hots, presaka bizitzeko apeta dugu. Azken ordurako uzten dugu dena, azken dantza horretan oro konpontzea ezinezkoa dela jakin badakigun arren. Beraz, ez ote gara damutuko bizitza nahi gisara gozatu ez izanaz, minezko seinaleei kasurik ez egiteagatik.\*



# EREGI

EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

tel.: 943 08 06 88

[www.eregi.eus](http://www.eregi.eus)

**Azpeiti**  
AUTOESKOLA

[www.azpeitiautoeskola.com](http://www.azpeitiautoeskola.com)

Tel.: 943083143 / 635727230

Azpeitia Txartelarekin  
%10eko beherapena  
apirilaren 15era arte



Belaunaldi aldaketa dela eta,  
**Oñatz Gain** soziedadeko kide berria  
izateko aukera paregabea.

- Estalitako hiru jangeletan eta kanpoko zelaian dituen  
mahaletan 120 lagunentzako tokia. Frontoia ere badu.

- Bazkidetzaren sarreraren prezio erakargarria  
eta ordaintzeko erraztasunekin.  
Prezio bereziak taldeka datozenentzat.

Interesatuak deitu 678581441 edo 678780828 telefonora.

Jarri hemen  
zure publizitatea

# Mundua begiratzeko leihoak

**I**t's complicated to explain. Zaila da azaltzen. Halaxe erantzun nion Euskal Herriko egoeraz galdetuta bikote irlandar bati. Izan ere, nola azaldu ingelesez, nahiko arrotza zaidan hizkuntza batean, gure herrialdeko egoera zertan datzan, euskaraz azaltzeak ere lan dezente ematen digunean?

Gure mugetatik kanpo harrapatu naute gure herriko historian iltzatuta geldituko diren hainbat albistek, eta atzerrian ere sona handia izan duten une honetan bertan, euskalduna izaki, egoeraz mintzatzea egokitu zait. Guztiaz hausnartzeko abagunea izan dut. Beharbada, lehenago atentzio handiegirik eskaini ez nien hainbat kontu birpentsatzeari ekin diot. Distantziak horretan laguntzen duelako.

Distantziak erakutsi dit, ez gaudela erratuta. Kanpotik begiratuta ere, gure herriko bake-prozesuan izan den blokeo egoerak ez du inolako zentzurik. Distantziak erakutsi dit, euskal presoen eta euren familien artean dagoen distantzia laburtzeko euskal gizarteak duen beharra lehen mailako arazo bat dela gure herrian, orain, inoiz baino gehiago, gainera. Distantziak erakutsi dit, edonork egin dezakeela barre gure kontura, baina guk ez dugula besteez barre egiteko eskubiderik, ordainetan irainak jaso gabe. Distantziak erakutsi dit, gure hizkuntza hiriburuetakoa erakusleiko turistikoetako amu folkloriko bat baino askoz gehiago dela, maite dugula, bizi dugula.

## Leihoak gilotinak dira

Ez dago gertutik ikusteko kanpoko leihoetatik begiratzea baino irtenbide egokiagorik. Ez dut Izarraitzeko belazeak ikusteko aukerarik, ezta etxeko atarian umeak euskaraz entzuteko okasiorik izan ere, baina kanpoko mundutik gertuko mundua begiratzeak, ematen du aukera bizi duguna beste ikuspuntu batetik behatzeko. Min egin diezazuke barrua begiratzeak, ikusten duzuna gustatzen ez zaizunean, baina leihoak ez dira errealitatea enko-



|||||||||||||anartz izagirre||||

|||Ohartu nintzen neuk ere ez ingelesez eta ezta euskaraz ere, minutu batzuk lehenago esandakotik tutik ulertu

adratzen duten markoak besterik. Mundu oso bat dugu mugetatik haratago.

Bikote hari azaldu nion *Basque country*-a administratiboki bi herrialdetan banatzen dela, eta hegoaldeak beste bi zati dituela, berriak eskuaz airean puzzle inprobisatu arraro bat irudikatzen zuten bitartean. Armagabeteaz aritu ginen hizketan. Dispersioaz. Adierazpen askatasunaz eta erabakitze eskubideaz. Euskaraz bizi al nintzen galdetu zidaten. Nik, baietz, baina bazela Euskal Herrian euskaraz ikasteko aukerarik ez zuenik ere. Nafarroako zonifikazioaz aritu ginen eta Ipar Euskal Herriko elkargoaz, besteak beste.

*We don't understand.* Ez dugu ulertzen. Halaxe erantzun zidan batek guztia entzun ostean. Mutu gelditu nintzen. Ezer esan gabe leihotik kanpora begira jarri, eta orduantxe ikusi nuen ikusi beharreko dena. Nork ulertuko ote du, bada, guk geuk ere ulertzen ez dugun egoera bat. Orduantxe konturatu nintzen leku hark bazuela mundua begiratzeko leiho bat, Euskal Herria begiratzeko leiho bat, eta ohartu nintzen nik neuk ere ez nuela ez ingelesez eta ezta euskaraz ere, minutu batzuk lehenago esandakotik tutik ere ulertzen.\*





# ZATOZ ETA EZAGUTU SOREASUKO ELKARGUNEA!

\*Xaboi biodegradagarria

\*Bigarren eskuko denda  
MATERIALA MERKE ETA TXUKUN!

(Orduategia: Ostiraletan 16:00-20:00)  
Zapatuetan: 10:00-13:30)

\*Sakonako barazkien otarreak  
jasotzeko aukera  
(Astelehenetan 19:00-19:30era)




**Aldaketa herritik!**

*Elkar-ekin*

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

# UEMA, hezkuntzan eraginez

Udalerrri euskaldunetako ikasleak euskararen egoeraz sentsibilizatzea eta gaiaren inguruan hausnartzea da hezkuntza proiektuaren xedea. Herriko 1.000 ikasle inguruk hartu dute parte.  Ainitze Agirrezabala

**U**dalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMAren) ekimenez euskararen arnaguneen inguruko hezkuntza proiektua landu dute Azpeitiko Ikastola Ikasberrin, Iraurgi Ikastetxean eta Urola Ikastolan. Guztira, DBHko eta Batxilergoko 1.000 ikasle inguruk hartu dute parte egitasmoan.

UEMAren hezkuntza proiektuaren helburua da udalerrri euskaldunetako ikasleek euskararen egoeraz sentsibilizatzea eta gaiaren inguruan hausnarketara bultzatzea; izan ere, UEMAKo lehendakari eta Udaleko zinegotzi Josu Labakaren esanetan, "azterketek erakutsi dute, gutxi edo asko, euskararen arnaguneetan hizkuntzaren ezagutzak eta erabilerak atzerakada izan dutela. Arrazoi horregatik,

ikasleen sentsibilizazioan eragiteko beharra sentitu dugu".

Bi hezkuntza zikloetan metodologia desberdina erabili dute. DBHn, ikastetxeetako irakasleek eman dizkiete klaseak ikasleei, aurrez UEMAKo teknikarien eskutik ikastaroa jasota. Behin edukiak landutakoan, horiek ikasleei erakusten dizkiete.

Batxilergoko ikasleei, berriz, UEMAKo teknikariak ematen dizkiete klaseak. Hala, ikasleek hizkuntza ekologia eta euskararen arnaguneen inguruko hainbat kontzeptu landu dituzte teknikarien laguntzaz. Labakak azaldu duenez, "saio horiek ikasleak hausnarketara bideratzen dituzte, eta oso esperientzia positiboa izan da".\*



Urola Ikastolako Batxilergoko ikasleak, UEMAren hezkuntza proiektua lantzen.  UEMA



Iñigo Arregi.

## ESANA DAGO

“Gure helburu nagusia da aurrekoek egindako lanarekin jarraitzea”

**IÑIGO ARREGI**  
Lagun Onak futbol taldeko presidentea

“Ez dut ez naizena naizela sinetsarazten aritu beharrik orain”

**XABIER LOZANO**  
gizon transexuala

“Nor bait bakarrik sentitzen bada edo lagun gutxi baditu, aukera polita da ibilketa nordikoa egiten hastea”

**MIREN OSANE**  
**AMILIBIA**  
ibilketa nordikoko ikaslea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

**URBISTONDO**  
**MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 beheak      20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Zure autobak behar duzun odazterako!

**FX** **AIZPURU AUTOAK**


Tel: 943 81 23 69      aizpuru@aizpuru.net  
Fax: 943 81 22 81      www.aizpuru.net      Arretze 17, 20730 AZPEITIA

## Herenegun, etzi

**H**erenegun, alegia orain 40 urte, ni etzi izango naizena, alegia jubilatua, nola irudikatuko nukeen galdetuta erantzuna bapatekoa izango zen. Gizona mahonezko prakak, txapela, zigarroa ezpainetan, solysombra kopa tapete ondoan eta musean. Emakumea, goitike behera, lutoz jantzita. Horiek ziren orduan niretzat ni laister izango naizenaren prototipoak. Adin tartean banaketa ere sinplea bezain argia zen: haurra, gaztea, heldua eta zaharra. Banaketa egun ere antzekoa izango da baina nor non kokatu, arazo franko. Urte gutxitan, ordea, mundua asko aldatu da, lurraren erro-

tazio zentrua aldatu dela dirudi. Jubilatua munduaren motor bilakatu dira. Gastatzeko patrikan zakarra duten bakarrak dira; haurren zaintzarako master preziatuenean jabe dira; eta estetikoki aldaketa sinestezina da. Mahonezko praka eta txapelaren lekuan, punta-puntako kirolarien esretika. Zapatila arin, praka motz, dir-dir egiten duten hanka eta aurpegi moreno-morenoak eta soiltzen hasi den burua tapatzeko bixera xika. Gizon ala emakume. Emakume ala gizon. XXI. mende hasierako iraultza. Eta denak mobila sutan dutelarik, biloben argazkiak eta bideoak whatsapez bidali

eta bidali. Asko aldatu da bai mundua, arlo honetan, nik uste, onerako. Baina, etengabe, errotazio zentrua duen jakin gabe, bueltaka aritzen nire buruan zalantza. Benetan mundua izango da aldatu dena ala nire pertzepzioa. Alegia, ez ote dugu gauza bera adin ezberdinetan diferente ikusten? Nik herenegun nuen adineko batek zer nola irudikatuko ote du ni etzi izango naizena? Gauza bera estalki ezberdinarekin? Mutil gazte batek zuka egin zidanetik ez naiz mutil? Gizon? bera. Gazte sentitu arren kolpetik zahartu eta neure errealitatean jarri ninduen. Pertzepzio kontua.\*



txetxu urbieta

### IKUSTEKO! :



### ▲ AZPEITIKO HERRI GALDEKETAKO MATERIALARI ZUKUA ATERATZEN.

Independentziaren gaineko herri galdeketa iazko ekainaren 5ean egin zen Azpeitian, eta datozen hilabeetan galdeketak egingo dituzte Euskal Herriko beste 130 herritan. Maiatzaren 7an, esaterako, Urola Kostako zortzi udalerritan –Aizarnazabal, Azkoitia, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia– egingo dituzte. Busturialdeako hainbat herritan, berriz, apirilaren 2an egin zituzten galdeketak, eta, hain zuzen, Bizkaiko eskualdeko txoko desberdinetan kontsultak iragartzeko Azpeitian sobratutako materiala erabili dute, argazkian ikus daitekeenez. [Uztarría\\*](#)

## MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



### *Atera gillotina plazara*

**AZPEITIAROK SISTEMA JUDIZIAL PROPIOA.** Hilabeteetan herriko kafetegi eta tabernetan trending topic izan den zuloen kontua artxibatu da. Baina horrek zer axola du? Azpeitiarrok ez dugu epaileen eta ikerketen beharrik seinalatu eta epaitzeko, inor baino azkarragoak baikara. Kanean topatzen dugun aurrenak bere bizilagunaren errainaren lehengusu alargunaren osabarekin soldaduska egin zuenari entzun ziona baino testigantza fidagarriagorik ba al dago ba?



.....julen eizmendi.....



### *Gitarrai hautse kentzen*

**BADAUKETBA AURTENE GOUE.** Asko gustatzen ez zuten iniziatibie da hau, kontzertu normal baten zurruntasunikbe oholta gañea iyo, txoruena in, gitarrak astindu ta zarata pixket atetzeko egune. Penie nere kualidadien artien ritmue ta musikako sena ez eotie.



### *Emakume langileak*

**ESPABILATU GAITEZEN.** Euskal Herria Europako herrialde aurreratuenekin alderatzen dugu askotan, eta merezimenduz nire ustez hainbat alorretan, baina badaude oraindik asko landu beharreko atalak. Horetako bat familia eta lanaren arteko kontziliazioarena da, oraindik

ere emakumeak izanik kaltetu nabarmenenak. Bidegabea izateaz gain, jaiotze tasa ahula eragiten du horrek, eta martxa honetan ea zer biztanleriak egingo duen etorkizunean horrenbeste jubilatu mantentzeko adina lan.\*

INKESTA

Hartuko al duzu parte astesantuko ekintzetan?

Ainitze Agirrezabala

AIMAR AIZPURUA

11 urte



“Ez dut asmorik. Arreba gazteenak jaunartzea egingo du aurten, eta opari bezala

familia osoak Parisera bidaiatuko dugu. Astebete pasatuko dugu han, eta bi egunetan Euro Disneyra joango gara”.

ELENE ALONSO

11 urte



“Beste urteetan hartu izan dut parte Aste Santuko oporraldiko

ekintza berezietan. Aurten, ordea, eskolako gelakideekin Zestoako Sastarrain baserri eskolara joateko plana egin dugu. Hiru egunetan joango gara zaldian ibiltzera eta baserriko jarduera desberdinak egitera”.\*



Bakartaldean

Azkenean heldu da asteburua; errutinatik irten eta lagunekin egoteko unea. Astea gogorra izan da, mila zeregin eta astirik ez, kezka ugari eta hau ezinegona! Barrua hustu beharra dut, lagunekin hitz egin eta haien iritzi eta gomendioak jaso. Irrikaz nago jendea ikusteko, kalera irten eta elkarren berri emateko.

Hala ere, arratsaldea oso bestelakoa ari da izaten, kafea irabiatzen ari naiz, katiluari so; eta lagunak, behatzarekin irrist eta irrist, pantailatik ez dute begirik altxatzen. Urduri nago, eta lehen mugikorretik adierazi diedanean banuela premia korapilo hau askatzeko, beraiek ere elkar ikusteko eta *deskonektatzeko* gogoia zutela iruditu zait. Orain, aldiz, nor bere munduan dago, mugikorrari itsatsita, orainaldi fisikotik at. Bata arduratuta, igo duen azken argazkiak uste baino arrakasta gutxiagoa izan duelako, eta hor dabil milaka argazki erne aztertzen. Bestea larritu egin da whatsapppeko elkarriketa baten momenturik interesgarrienean batera agortzear duela-



lierni varela

ko eta orain haria moztu ezin duelako. Beste biak *youtuberrak* ikusten eta kiroleko auskalo zer kontutan dabilta. Eta ni, bien bitartean, buruari, kezkei, kafeari eta parean topatutako guztiari bueltak ematen. Bostok elkarren ondoan gaude, taldean, baina ni bakarrik sentitzen naiz, haririk gabeko elkarriketetan nabil nondik heldu ez dakidala, eta loa kentzen didan har hori nola kanporatu ezin asmatuta... Gaur egun gero eta zailagoa egiten ote zaigu kalera irten eta zuzeneko harremanak izatea? Ingurura begiratu eta mugikorrek ikusten ditut bistan, mahai gainetan nahiz esku artean, eta neure buruari galdetzen diot ea bakarra ote naizen taldean egonik ere uharte bakarti bat sentitzen dena.

Etxera itzultzeko ordua heldu da, aspaldi amaitu dut kafea, bai eta haren ondorengo pintxoia eta zuri-toa ere. Ohera sartzera noa eta *plin-plin*, WhatsApp. Kuadrillako taldea:

- Zer hunan lehen, ondo al hago?\*

galdetzen hasita, Azpeitian adinako kultur mugimendua -iaz 180 ekitaldi-duten zenbat herri ote daude? Uztarria

‘Sapiens’ kinka larrian

Sapiens (“jakintzu”) izena jarri zioten gure giza espeziari, besteak baino jakintsuago ginelako us-tetan. Usteak erdia ustel, eta erdia balitz gaitzerdi.

Bi milioi eta erdi urte dira gizadia –*Homo gene-roa*– agertu zela *australopiteko*engandik. Gure espeziea –*Sapiens*– duela berrehun mila urte sortu zen beste espeziaren batetik. Geure burmuin garatuak gaitasun harrigarriak eman zizkigun –ematen dizkigu– onerako zein txarrerako, kreaizaile nahiz sun-tsitzaile izateko, senide bihozbera nahiz nagusi bihozgabe. Zer aukeratuko ote?

Badirudi, tamalez, nagusi izatea aukeratu dugula orokorrean. Haztea, irabaztea. Beste giza espezieen eta gainerako abere guztien nagusi bilakatu ginen. Ama Lurraren jaun eta jabe ustiatzaile. Eta, jakina, elkarren esklabu, denak nagusi izatea ez baita posible. Ama Lurraren egoera ez da sekula hain larria izan. Ezta gizaki nahiz herri batzuen eta besteen arteko diferentziak ere.



joxe arregi

Bere ibilbide kontraesankorrak, hazi eta irabazi behar eroak, amildegiaren ertzera ekarri du espezie osoa. Ama Lurraren jainko suntsitzaile bilakaturik, eboluzioaren beraren nagusi bihurturik, leize-zuloan amiltzeko zorian ageri da, bere buruaz harago jauzi egiteko zorian, edo bere buruaz beste egiteko kinkan. Giza burmuina baino ordenagailu edo izaki (gizaki?) inteligentegoak eta ahaltsuagoak sortzeko lehian ari dira multinazional handienak (Google, Microsoft, Apple, Facebook, Amazon, IBM, Nasa...). Zer izango ote da orduan, laster?

Gizaki arruntok kondenuatuak izango ote gara, orduan, teknologia berriei konektaturiko super-gizakien esklabu izatera? Edo gure espezie osoa izango ote da berak sortutako eta bera baino ahaltsuago bilakaturiko organismo bizidun, ciborg edo roboten biktima? Ez jakin.

Oraindik gure esku dago aukera: denok bizi ala denok hil. Hil ala bizi.\*

# AZPETTI

# INK



# Aeroplanoak

**H**urritz, harrituta naukazu. Urtebeterako horrelako ahalik gara zenezakeenik ez nuen berehala uste. Badirudi zure musua gai dela bere kasa formez eta koloreez haratago gauzei antzemateko. Ikustekoa da ahoratu nahi dizkizudan jangai berriei nola egiten diezun itzuri. Edozein plastiko marruskatzeko beti prest dituzun hortzak, hesi gaindiezin dira hegazkin bihurtzen dudako koilararentzat. Alperrik saiutzen naiz tortilarekin, patata zatiekin eta frutarekin: mingainera iritsi orduko, esku zartzak eraisten dituzu sigi-sagan datozkizun aeroplanoak King Kong kume baten pare.

Hori ez da txarra, Hurritz. Susmoei bide egokia eman behar zaie. Neurrian fidatzea, bizi garen munduan aurrera egiteko ezinbesteko antzea da. Bestela, arian-arian ia beti beranduegi ikasten da. Horregatik zurtu nau zure joerak, ikasteko betarik gabe berez bezala sortu baitzaizu. Ilearn kolorearekin batera, nire errezelotik zerbait pasatu ote dizudan, horra etorri zaidan azalpen logiko bakarra.

Hala bada, agian jatekoa baino hegazkina izan daiteke atzeraka eragiten dizuna. Behar bada garraibideak sortuko dizu zuri izurikara, eta ni jabetu ez!

Bai, bete berri da Argentinako 1976ko kolpe militarren urteurrena. 41 urte iragan dira, baina urtero legez marea jaistean hondartzara datoz milaka desagertu. Aspaldi hartan, Garage Olimpo filma ikustean, bueltako txartelik gabeko bidaiak haiek hegazkinei begiratzeko era aldatu zidaten betirako. Akaso, geneetan korapilatuta nire geriza horren hondarren bat jasoko zenuen.

Ulertu dut, Hurritz. Jatekoa beste modu batez eskaintzen saiatuko naiz aurrerantzen. Ea jakiz osatu karabana solidario batekin zorte handiagoa dudana...\*



|||||||xabi borda|||

# Erotikan Plax!

**A**xun Esnaolaren txanda da, hil honetako 'Erotikan Plax!' atalean.

## Azpeitiarrok zaintzen al dugu geure burua?

Gero eta gehiago. Egungo bizi erritmoak, gaixotasunek... Oro har, bizi ditugun egoera eta gertaera ezberdinek pizten digute zaintzeko nahia.

## Kontsoladoreak, bola txinak... jostailu erotikoak dituzu zure dendan.

Bai, gauza ezberdinetarako. Normalean, bola txinei erabilpen terapeutikoa ematen zaie zoru pelbikoak lantzeko. Kontsoladoreak, berri, plazerrako erabiltzen dira.

## Zer produktu naturalek lagundu dezake desio sexuala igotzen?

Makak. Jalea batzuek ere libidoa igotzen laguntzen dute. Bere garaian sobretxo batzuk ere egon ziren. Sobreetan olioak izaten zen, eta aluan emateko erabiltzen zen.

## Harreman osasuntsu bat izateko zer da beharrezkoa?

Elkar ulertzea alor guztietan. Horrekin edozein lekutara joan zaitezke, neska! Mendira, ohera...

## |||AXUN ESNAOLA|||

**Adina.** 45 urte.  
**Jaioterria.** Beizama.  
**Bizitokia.** Azpeitia.  
**Lanbidea.** Belar dendako arduraduna.



## |||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)|||

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua  
[www.azpeitikoudala.eus/sexu](http://www.azpeitikoudala.eus/sexu) 688897920  
Hitzorduak, apirilean: hilaren 5ean (16:00-19:00) eta 29an (10:00-13:00).

## Zer esango zenioke armairutik atera nahi duenari?

Atea zabaltzeko lasai asko.

## Zeloei buruz zer iritzi duzu?

Oso traizioneroak direla.

## Zerk egiten zaitu erakargarri?

Begiek. Horiekin hitz egiten dut askotan.

## Zerk sorgintzen zaitu?

Ardo onak, kar, kar, kar.

## Osagarri bat?

Kulero fin polit batzuk.

## Gustuko gorputz atal bat?

Bularrak.

## Bidaiatzeko leku bat?

Mexiko, handik etorri berria naiz. Baina, egia esan, edozein tokitara bidaiatuko nuke.

## Usain bat?

Limoia, freskotasuna.

## Janari goxo bat?

Likordun bonboiak.

## Oilo ipurdia jartzen dizun abesti bat?

Benetako oilo ipurdia *Xalbadorren heriotza* elizan entzuteak.

## Plan borobil bat?

Afaria konpainia eder batekin. Erlojurik gabe patxada ederrean, egiten duguna egiten dugula elkarrekin gozatuz.

## Oroitzapen polit bat?

Marokoko basamortuan, isiltasun ederrean, ilunabarra hondarrezko menditxo eta jaima artean ikustea eta sentitzea.\*



### ▲ TRAFIKOA ZUZENDU.

Herriko trafikoari ahalik eta txukunen eusteko, udaltzaingoek zereginetako bat da trafikoa antolatzea, batik bat, eskolako sarrera-irteeretan. Ibilgailuek zamalanetarako guneak eta ilara bikoitzak errespetatzen dituzten ere kontrolatzen dute. Argazkian, Josu Usabiaga udaltzaina trafikoa zuzentzen.

# 24 orduz, 365 egunez

Azpeitiko Udaltzaingoek lan-taldea 18 lagunek osatzen dute. Herriaren zerbitzura egunerokoan egiten duten lana iruditari jaso du Uztarriak. 📷✍️ Ainitze Agirrezabala





### ▲ **OBREN KONTROLA.**

Herriko obra pribatuak kontrolatzeaz arduratzen da Mari Cortes udaltzaina. Besteak beste, obretako edukiontziek, aldamiok... leku publikoa zenbat egunetan zenbat metro hartzen duten neurtzen du, ondoren txostena udalera bidaltzeko, horrek guztiak tarifa bat du eta. Horrez gain, obrak egiteko lizentziak eta baimenak behar bezala dituzten ere aztertzen du, eta jatetxeetako eta tabernetako terrazek leku publikoa zenbat hartzen duten ere berrikusten du.

### ▶ **GARABIA.**

Oso gaizki aparkatutako ibilgailuak garabiarekin eramaten dira. Jabeak autoa udal-biltegitik ateratzeko 64 euro ordaindu behar ditu, eta 200 euroko isuna. Azken kopuru horren kasuan, erdia ordaintzeko aukera dago berehala ordainduz gero. Autobusaren geltokian uztea, garaje sarrera oztopatzea, ilara bikoitzean uzteagatik beste kotxeren bat atera ezinda geratzea... hutsegite larriak dira.





### ▲ **JABEA NOIZ AZALDUKO ZAIN...**

Galdutako gauzak jasotzeko armairua dute udaltzaingoaren egoitzan. Giltzak, jostailuak, arropa, betaurrekoak... dituzte gordeta. Bitxikeria bezala, Jose Anjel Aristi udaltzainburuak dio hortzordeak eta audifonoak ekarri izan dizkiotela. Dirua, erlojuak eta bitxiak giltzapean gordetzen dituzte, eta bi urteko epean jabea agertzen ez bada, aurkitu zuenari itzultzen diote.

### ▼ **IREKI ETA ITXI.**

Udalaren eraikinak goizeko lehen orduan irekitzeaz eta gauean ixteaz ere udaltzainak arduratzen dira. Argazkian, Euskal Herria auzoko Karmelo Etxegarai ikastola ixten.



### ▲ **ISUNA JARTZEN.**

Ilara bikoitzean aparkatutako argazkiko furgonetari isuna jartzen ari zaio Usabiaga udaltzaina.

### ▼ **DESFRIBILADOREAK.**

Zazpi desfribiladore ditu alokairuan hartuta udalak: haietako bi udaltzaingoaren bi kotxetan daude, eta gainontzekoak kiroldegian, igerilekuan, Soreasun, Izarraitz frontoian... Jendea asko biltzen den herriko guneko publikoetan, alegia.





### ▲ **SONOMETRIA PROBA EGITEN.**

Tabernaren baten gainean edo inguruan bizi den herritarra musikaren zarata altuagatik kexatu bada, haien etxera joaten dira zarata maila neurtzera. Ondoren, txostena udalera bideratzen da, eta udalak hartzen ditu hartu beharreko neurriak.



### ▼ **ALKOHOLEMIA.**

Istripu guztietan egiten diegu alkoholemia proba gidariei. Bestalde, norbait modu zelebrean ikusten badugu autoa gidatzen, hari ere proba egiten diegu. Argazkian, herritar bat putz egiten.

Z

ilindrada handiko motoak eta kotxeak edukitzeko desioa; derrapatzeak, tronpoak edo elkarren arteko lasterketak egiteko zaletasuna... Azpeitian oso errotuta dagoen kultura da abiadurarena, batik bat mutilen artean. Denboran atzera eginez gero, luzea da moto edo auto istripuetan bizia galdu duten edo bizitza aldatu zaien azpeitiar gazteen zerrenda. Abiadura eta ausardia lotzen dituen eredu horrekin hausteko eta abiadura kulturaren inguruan hausnartzeko, Azpeitiko Udala Bizitzaz Blai egitasmoa ari da lantzen hainbat eragilerekin elkarlanean, hala nola Errezilgo Udalarekin, Harremanak Osasun Zentroarekin, herriko ikastetxeekin, Udaltzaingoarekin, osasun arloko profesionalekin, istripuak izan dituzten herritarrekin eta haien senideekin, Stop Istripuak Elkartearekin, herriko auto gidari batzuekin eta Erztzaintzarekin.

Harremanak osasun zentroa proiektuaren erdigunean dago, eta bertako berdintasun teknikari Ana Elosegiren esanetan, "abiaduraren kontzientzia hartzeko eta istripuak saihesteko prebentzioan oinarritzen den proiektua da, hezkidetzat lantzea helburu". Elosegik adierazi du, duela bi urte, Zestoatik bueltan hiru gazte hil zirenean erabaki zutela zerbait egin beharra zegoela. "Hausnartzen hasi ginen Errezil bezalako herri txiki batean nola zitekeen hainbeste mutil gazte hil moto eta auto istripuetan". Izan ere, azken hamar urteotan bost mutil hil dira Errezilen, hasi 5



Kotxea 230 kilometro orduko abiaduran. |||Maialen Etxaniz

# Errepidean, tentuz

Abiadura kulturaren inguruan gazteak kontzientziaztea eta auto eta moto istripuak saihestea helburu, Bizitzaz Blai egitasmoa abian da herrian. 📝📍 Ainitze Agirrezabala



urtetatik eta 30 urtera artekoak. Elozegi Errezilen bizi da, eta kontatu du "pertsonek harritu" egiten zuela gazteen artean, mutiletan, batik batik, zegoen "kulturalak, kotxeetarako duten afizio bereziak eta hori guztia ume txikiak nola transmititzen den ikusteak".

Hausnarketa haietatik abiatuta, abiadura kultura birpentsatzea xede, Bizitzaz Blai proiektua sortu zuten hainbat errezildarrek hanga udalarekin lankidetzan. Iazko urrian egin zituzten saioak haurrekin, irakasleekin eta gurasoekin, eta "balorazio oso ona" egiten dutela adierazi du Elosegik. "Ikasleek oso ondo erantzun zuten, eta guraso askok eskertu zigun tabua zen gaia landu izana". Heziketan eragiten jarraitzeko asmoz, Errezilen egitasmoa bi urtez behin lantzea erabaki dute.

Abiadurak eta istripuek, ordea, ez ditu soilik Errezilgo bizilagunak kezkatzen, eta han aitzindaria izan den egitasmoari heldu diote Azpeitian ere. Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu Estitxu Elduaienen esanetan, "gehiago edo gutxiago, belaunaldi gehienok ezagutu dugu inguruan norbait errepideko ezbeharrean hil edo gurgil-aulkian geratu dena". Urteetako kezka horren aurrean, Azpeitiko Udalarari "ezinbestekoa" iruditu zaio "motoa eta autoa hartzera doazen gazteengana zuzentzea", eta horregatik landuko dute gaia 14 eta 18 urte arteko gazteekin, prebentzioan eta kontzientziazioan eragiteko.

### Heziketan eragiteko saioak

"Generoan oinarritutako estereotipoak landu" nahi dituztela aurreratu du Elosegik: "Zer

## || ISTRIPUAK ZENBAKITAN ||

**52 istripu.** Ertzaintzaren datuen arabera, 2007 eta 2016 urteen artean herriko errepideetan izandako auto eta moto istripu kopurua da. Azkoitian 42 izan ziren, Zestean 31, Errezilen 4 eta Beizaman 0.

## || FORMAZIO SAIOAK ||

Abiadura kulturaren inguruan hausnartzeko saioak antolatuta dituzte.

### SIMULAZIOA ETA LEKUKOTZAK

**Antzezpena.** Lehen saioak Soreasun izan du hitzordua, apirilaren 4an, eta istripu baten eszenaratzea egin dute. Bi saio ireki izan dira, 10:00etan eta 12:00etan, eta nahi dutenek joateko aukera izan dute. Herriko 400 bat gaztek ikusi dute antzezpena.

**Testigantzak.** Suhiltzaileek, medikuek nahiz udaltzainek lekukotzak eskaini dituzte. Haiez gain, testigantzak kontatu dituzte moto istripua izan eta semea gurgildun aulkian duen Arantxa Lizasok eta Jorge del Cid auto gidariak.

### SOLASALDIAK

**Ikasleekin.** Aste Santuko oporren ostean, herriko hiru ikastetxeetako DBH 4. mailan, Batxilergoko bi mailetan eta Azkoitiko Lanbide Heziketan saio bana eskainiko dute Harremanak Osasun Zenteko kideek, ondorioak eta emozioak lantzeko eta balorazio bat egiteko.

**Gurasoekin.** Egitasmoarekin bukatzeko, gurasoentzako hitzaldia eskainiko dute.

maskulinitate eredu ari garen bultzatzen, mutil eta lider izate hori ausardiarekin eta abiadurarekin nola lotzen den, zergatik dantza gustatzen zaion mutila den sentibera eta ez liderra...". Elosegik dio "oso garrantzitsua" dela ikasleek istripua izan dutenen testigantzak entzutea, eta, ondoren, lanketa egitea, "jabetzeka ez dela kasualitatea guztiak mutilak izatea".

### Herritarren bizipen desberdinak

Trafiko istripua izan eta bizitza goitik behera aldatu zaien hainbat herritarren testigantzak jaso ditu Uztarriak: moto-istripuz semea galdu duen amarena; motoan zihuala ezbeharra izan eta besaurrea galdu duen gaztearena; moto-istripuz semea gurgil-aulkian duen amarena; eta auto-ezbeharrean anaia galdu duten bi herritarren bizipenak.

## IÑAKI ESNAOLA

|||Adina. 30 urte. |||2011ko uztailaren 28an moto istripua izan eta besaurrea galdu zuen.



### “Lan egokitu bat nahi dut”

“Eguraldi ederra zen, eta motorrean kostatik buelta eginda Azpeitira bueltan nentorren. Arroako ordainlekua pasatuta, tuneletik atera eta kamioi bat aurreratzen ari nintzela Presaldeko bidegurutzean auto bat atera zen stopa saltatuta, eta bete-betean jo nuen. Autoaren atzeko leihatilan sartu zitzaidan eskubiko besoa, eta ukalondotik beherakoa galdu nuen. Honda bat nuen, 600 zilindradakoa. Kotxea ere banuen, baina motorra kapritxoa zen. 14 urtetatik eduki dut motorra: scooterra aurrena; gero, 16rekin RR bat; eta, ondoren Suzuki bat ere ekarri nuen.

Lehen egunak oso gogorrak izan ziren. Izan ere, ez zekiten aurrera aterako nintzen, eta ateratzeraz zer ondorio izango nituen. Oraindik ere, gogoratzen dudanean barruak mugitzen zaizkit, baina aurrera egiten ikasi dut. Ospitalean esnatu nintzenez, neure burua egoera hartan ikusteak egundoko inpresioa eragin zidan. Hasieran ez nuen arnasa neure kasa hartzen, eta intubatuta nengoen, bihotzaren pultsazioak markatzen dituen makinara lotuta. Bizkarrezurreko bi hezur pitzatuta nituen, eta eskumuturra, hanka eta femurra hautsita. Egundoko aberia egin nuen. Duela hiru urte ebakuntza egin zidaten, eta korrika ezin dezaket egin, baina hanka ondo geratu zait ibiltzeko. Bizkarra ere bai. Gogorrena besoa galtzea izan da. Hasieran, dena bestek egin behar izaten zidaten, eta istripuaren ondoren beso bakarrarekin kalera ateratze hori ere gogorra izan zen. Oraindik ere, eguraldi aldaketekin eta, kalanbreak ematen dizkit besondoak. Fantasma sindromea deritzo. Burmuinak uste du oraindik besoa hor dagoela; zirkulazioa badago, baina mugimendurik ez. Hasieran, orde, kalanbreak izugarriak ziren, minaren minez ezin

nuen lorik ere egin, eta botika asko hartzen nituen. Oso sentsazio desatsegina zen.

Eskubia naiz, eta errehabilitazioa eginda eta fisioterapeuten laguntzarekin, pixkanaka ezker eskuarekin ikasi dut jaten, janzen, idazten, zapatila lokarriak lotzen, hortzak garbitzen... Zentzu horretan autonomia naiz.

Ramon Etxeberria *Dioni* etorri zitzaidan ospitalera bisitan. Hark lan istripuan besoa galdu zuen, eta animo handiak eman zizkidan. Lan istripuz baita ere besoa galdu zuen Jose Anjel Buldain *Naparrarekin* ere egon nintzen, eta beraien kotxeak erakutsi zizkidaten, nola zituzten egokituta. Neuk ere kotxea eta bizikleta nire beharretara egokituta ditut. Autoak abiadura kaxa automatikoa du, eta bolanteak pomo bat du gidatzeko, eta bertan ditu txertatuta keinukariak, klaxona, argien botoiak eta parabisarrena. Istripua izan eta bi urtera Zumarragatik joan-etorria egin nuen bizikletan, eta hura izugarriko lorpena izan zen. Oso harro nago bizikletan ibiltzeko gai naizelako. Orain spinningean-eta dena hasi naiz.

Gaztea zarela, 20 urterekin, ez zara jabetzen zer arrisku dauden errepidean. Orain 30 urte egingo ditut, eta beste era batera ikusten ditut gauzak. Istripu larriren bat gertatzen denean beti akordatzen naiz 2011ko uztailaren 28 hartan gertatutakoaz. Negar asko egin dut urte guztiotan, asko. Eta askotan kulparik ez dutenekin ordaindu dut, gurasoekin, eta izugarri eskertzen diet lagundu didaten guztia. Laguntza handia jaso dut, eta aurrera egitea lortu dut. Istripua eta gero, bizitzako eguneroko gauza txikiak gehiago apreziatzen ditut. Orain ilusio handiarekin nago: lagunak ditut, familia, neskalaguna ere bai... Aurrera begira nire helburua da lan egokitu batean hastea eta bizitza normala egitea”.

## MIREN ORBEGOZO

|||Adina. 32 urte. |||1998ko abuztuaren 27an Iñaki anaia galdu zuen, auto istripuz. Harekin batera hil ziren kuadrilla bereko beste bi mutil ere: Jagoba Eiguren eta losu Urdineta.



### “Ikasi egiten duzu bizitzen”

“Udako egun eguzkitsua zen; egun polit-polita, urdin-urdin zegoen zerua. Iñakik 17 urte zituen, eta mutil bizi-bizia zen. Adin horretako gazte askok bezala, liskarrak izaten zituen gurasoekin, baina gogoan dut egun hartan hala esan ziola: ‘begira, ama, gaur ez dut gogorik haserretzeko’. 18 urte urrian beteko zituen, baina kuadrillan batek baino gehiagok zuten gidabaimena. Familiar bazkaldu genuen; aita lanera joan zen, Iñaki lagunengana, ama anaia txikiarekin [5 urte zituen] etxean geratu zen eta ni lagunekin Azkoitira joan nintzen bizikletan. Azkoitia gozokiak erosten geundela, egundoko sirena hotsak entzun genituen: anbulantzia, ertzainak, suhiltzaileak... Zer pasatu ote zen jakinminez, istripuaren lekura joan ginen. Txerloian, Txiki Golf pare horretan, kotxe bat kamioi baten azpira sartuta zegoen. Barruan zihozten hiru lagunak hil egin zirela eta azpeitiarrak zirela zioten.

Gogoan dut kotxe barruan zegoenetako baten melena horia ikusi nuela. Gaur egun pentsatuko nukeen lehen gauza litzateke etxekoren bat ote den kotxekoa. Ba, orduan, ezin nuen edo ez nuen nahi ikusi begibistan zegoena. Ez dut gogoan han zenbat denbora egin nuen, orduerdi, ordubete edo hamar minutu, baina iritsi zen momentu bat iruditzen zitzaidala jende guztiak harraro begiratzen ninduela. Eta ikusi nuen han zeudela anaia-kuadrillakoak ere. Lagun bati behin eta berriz esaten nion hildakoak nortzuk ziren galdetzeko. Eta lagunaren begiradak dena esan zidan. Bizikletak hartu eta Azkoititik Azpeitirako bidea ez dakit bizian hain azkar inoiz egin dudana. Negar batean, bidea hiru aldiz erori nintzen. Inork ez zidan esan ‘bai, Iñaki da’, baina nik banekien bera zela. Aittolara zihozten, bi kotxetan. Negar batean ireki nuen etxeko atea, eta amari hotz-hotzean bota nion: “Ama, Iñaki hil egin da”. 13 urteko ume bat izatetik 13 urteko heldu bat izatera pasatu nintzen. Bizitza goitik behera aldatu zitzaigun.

Semea galdu zutenetik aita eta ama ez dira behin ere izango lehen zirenak. Beraien parte handi bat galdu zuten, eta Iñakik etxean utzitako hutsunea behin ere ez da beteko. Baina txapela kentzekoa da aurrera egiteko izan duten jarrera eta erakutsi duten indarra. Amorrua eta mina izanagatik, beti erakutsi dute aurpegiari ahal zen eta irribarre ederrena. Amak beti esan izan du beste bi seme-alaba izanda ezin zuela zulo hartan geratu, anaia txikiarengatik eta nigatik borrokatu be-

harra zuela. Josebak oso gutxi hitz egin izan du beti anaia zaharrari buruz, agian gertatu zenean oso umea zelako, baina lñakirentzat bere txiki kuttuna zen, harro erakusten zuen anaia gaztea. Negar asko egin dugu, baina min horrekin biziak aurrera segitzen du, eta indarrak atera egin behar dituzu. Oso presente dugu lñaki, eta gure oroitzenetan bizirik jarraitzen du. lñakiren urtebetetzean eta hil zen egunean beti hilerrira joaten gara loraxo ba-tzuk jartzera. Anaia hil zenean, haren arropa lagunen artean banatu zuen amak, baikoitzak lñakiren zerbait eduki zezan. Bere logela, berriz, denbora luzez berak utzita bezalaxe egon zen, baina logelara sartu eta zirudien denbora 1998an geratu zela, eta hori mina eragitera iritsi daiteke. Altzariak beste modu batera antolatu eta anaia txikia pasatu zen lñakiren gelara.

Hasieran esaten duzu: 'Puf! Nola eman behar diogu buelta honi!'. Baina denborarekin ikasi egiten duzu horrekin bizitzen. Gogorra da oso pasatu zena, kuadrillako hiru mutil gazte modu hartan joatea, baina gertakari hartatik atera dezakezun ikaskuntza positiboa izan daiteke. Noski, herrian istripu larriren bat gertatzen denean barrena mugitzen zaizu. Beraien lekuan jartzen zara, eta badakizu familia zer ari den pasatzen. Neuri pertsonalki asko kostatu zait buelta ematea. Baina denborak leundu egiten ditu zauriak, eta orain lasai hitz egin dezaket anaia buruz eta gertatu zenaz. Nik ez dakit zergatik pasatzen diren, baina pasatu egiten dira, eta ezin gara zuloan geratu; aurrera egin behar da.

Anaiarena pasatu eta gero, beti izan diet errespetu handia kotxei. Oso zorrotza izan naiz errepedean nire jokabideekin, izan ere zerbait pasatuz gero berriro puskatuko nuke

eguneroko bizia, nire familia eta dena. Edo errepedean arduragabe jokatzuz gero, nire erruz beste norbaiti eragin dakioket guk bizi izan dugun mina, eta hori ez diot opa inori. Nire bikotekidea rallyetako pilotua izan da, eta horrekin ere sufritu egiten nuen, baina bera egunerokoan arduratsua da errepedean, eta zentzu horretan asko lagundu dit. Gai nontzean, ondo iruditzen zait Udalak halako proiektua antolatzea, abiadura kulturaren inguruan hausnartzeko eta gazteak kontzientziazteko baliagarria baita".

## LURDES URRESTARAZU

|||Adina. 52 urte. |||2013ko maiatzaren 15ean semea hil zitzaion moto istripuz, 17 urterekin.



### "Bagara eta ez gara"

"San Isidro eguna zen, asteazkena. Giro bustia zen, nahasia. Batxilergoko lehen mailan ari zen, baina gaizki zebilen, gogorik gabe, eta hain justu astelehen hartan esan zuen etxean ikasketak uztea erabaki zuela, hurrengo ikasturtean Lanbide Heziketako Ziklo bat haste-

ko. Ikasketak zirela eta borroka eta sesio asko izaten genuen Mikelekin. Asteazken goizean eskolara joan zen bere gauzak jasotzera, lokalean lagunekin egon, eta elkarrekin bazkaldu genuen gero. Errezildik Azpeitira jaisteko garraio zerbitzua asko hobetu da geroztik, baina Errezilen ia gazte guztiek zuten eta dute motorra baseritik jaisteko, eta bestela gurasoak ibiltzen gara gora eta behera. Txiki-txikitatik zen motozalea eta kotxezalea. 14 urterekin eskatu zuen motorra, baina lortu genuen 16 urtera arte eustea. Atera zuen gidabaimena eta motorra ekarri genion. Eskolara autobusez joaten zen; parrandara eraman eta ekarri geuk egiten genuen, eta motorra erabiltzen zuen futboleko entrenamenduetara eta lagunengana lokalera joateko.

Etxean, sukaldako leihotik 200 bat metrora ikusten da kaminoa, eta bazkaltzen-edo geundela kotxe zarata entzun orduko mahaitik altxatzen zen lehiotik begiratzera zer kotxe ote zen. Txikitan aitarekin joaten ziren rallyak eta ikustera. Joxe Labaka, lñaki Alberdi... idoloak zituen. Zainetan sartuta zuen zaletasuna. Benetan bizi zuen. Tarteka, Olaberriko karting-era joaten ginen, eta bi seme zaharrenek ibiltzen ziren, adrenalina askatu eta pixka bat baretze aldera. Motorrekin errepedean kontuz ibili behar dela makina bat aldiz esan genion, baina gure semearen kasuan oso gaizki amaitu zen abiadurarekiko zuen zaletasuna.

Arratsalde hartan ez zuen entrenamendurik, eta eguraldi narrats harekin etxean gertzeko esan genion, etxean bazela eta zer egina. Baina ilea moztera joateko aitzakian, 16:00ak aldera atera zen etxetik. Errezilen ile-apaindegia itxita zegoen, eta Azpeitira joan zen, lokalera lagunengana. Etxera buel-

# BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza  
zaharberritzea  
nahi duzu?



Erositako etxebizitza  
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua  
Gremioen koordinazioa  
Epeak betetzea  
Erakusketa handiak

Abercaino poligonoa, 2  
Tel. 943 185 016  
Zarauz

Santiago ezkoa, 12  
Tel. 943 143 443  
Zumai

San Juan, 16 edif. AXRI  
Tel. 943 892 180  
Azkoitia

Geologia Kalea, 18  
Tel. 943 189 241  
Zestoa

tan, 19:00ak inguruan, bihurgune batean kontrako eskutik sartu eta kamioneta baten kontra jo zuen, eta kito. Ni bilera batean nengoan Errezilen, eta senarrak deitu zidan esanaz Mikelek istripua izan zuela. Bi urteko alaba txikia eta 12 urteko semea nirekin zeuden, eta hasieran pentsatu nuen etxera joatea, baina buruari bueltak ematen hasi nintzen, ez bainekien hanka hautsi zuen edo zezozer larriagoa zen. Istripu lekura ailegatzen ari nintzela izugarritzko auto-ilarak zeuden. Bi umeak kotxean utzi, eta korrikan joan nintzen. Ordurako senarra han zegoen, eta Mikel lurrean ari ziren erreanimatzen. Beste ordu erdi batez saiatu ziren suspertzen, baina ez zegoela ezer egiterik esan ziguten. Oso gogorra izan zen. Egia esan niri orduan ez zitzaidan negarrik atera. Ezta entierroan ere. Une horretan ez duzu erreakzionatzen. Hotz zaude. Labana sartu eta odolik aterako ez balitzaizu bezala. Etxean bestelako momentuak izan nituen. Distantziatik begiratuta, orain niri ere zaila egiten zait erreakzio hura ulertzea.

Bolada luze batean oso gaizki pasatu genuen. Badakizu egia dela, baina ez duzu sinetsi nahi. Amets bat bizitzen bezala zaude. 15, 12 eta 2 urteko beste hiru seme-alaba genituen etxean, txikiak asko behar ninduen artean, eta egia esan beste hiru seme-alaba izateak asko lagundu digu. Haiengatik indarrak atera eta aurrera segi beharra nuen. Konturatzan zara oraintxe bagarela, eta oraintxe ez garela. Eta segi egiten duela bizitzak. Asteazkenean istripua izan eta hurrengo asteko ostegunearan lanera joan nintzen, eta gizona ere bai. Batek baino gehiagok esan zigun: 'Ja lanera?'. Baina etxean geratu eta buruari bueltak ematea baino hobe zela erabaki genuen".

## AITZOL ARREGI

||| Adina. 36 urte. ||| 1999ko ekainaren 26an anaiak auto istripua izan zuen, eta bost urtez koman egon ondoren hil zen, 2004ko apirillean.



## “Oso argazki gogorra zen”

“Sanjuanak ziren, eta Orkatzeko lagunekin Hernanira joana zen parrandara. Bueltan, barrarik zetorrela, Orioko zubia pasatu eta Zarauzko ordainlekura iritsi aurreko kurban eskubiko bazter-babesa jo eta istripua izan zuen. Furgonetak ez zuen kolpe handirik, baina itxura denez, leihoa zabalik zeraman, eta furgoneta albo batera irauli zenean azpian harrapatu zuen. Buruan izugarritzko kolpea hartu zuen. Zapatuan 09:00ak aldera izan zuen istripua, eta arratsaldeko 19:00etan jo zuten tinbrea etxean bi ertzainek. Ekainek istripua izan zuela esan zidaten, eta azkar ospitalera joateko. Bakarrik nengoen etxean. Ama asteburua pasatzera kanpora joana zen, eta aitari baserrira abisua pasatu eta bera joan zen ospitalera. Zapatua zen, eta kalera atera eta zuzenean Orkatzera joan nintzen, Ekainen kuadrillakoek zerbait bazekiten jakiteko asmoz, baina inork ez zekien ezer. Egonezina nuen, eta azkar etxera joan nintzen. Aita ospitaleetik etxera etortzean esan zidan Zainketa Intentsiboetako Unitatean zegoela Ekain, eta kontua beltz jarri ziotela medikuek. Hurrengo egunearan gurasoak garaiz joan ziren ospitalera, eta zereginik ez zegoela esan zien. ZIUn 40 egun egin zituen, eta egonkortu zenean gelara jaso zuten. Zunda bidez elikatzen zuten eta trakeotomia egin zioten. Garun-heriotza zuen, eta sei hilabete ospitalean pasatu, eta santotomasetan ekarri zuten etxera.

Heriotza guztiak dira traumatikoak, baina istripuek gehigarri bat dute, bat-batekotasuna. Istripua izan duten askok ez dute aukerarik, denborarik agurtzeko. Istripua izan eta lehen urtean harreman asko egin genuen koman egon, esnatu eta hitz egiten, oinez... berriro ikasketa prozesua hutsetik egin duen jendearekin. Esperantzarik ez genuen sekula galdu, azkenean arte. Egia da hasieran listoia oso goian jartzen duzula. Gero, denborarekin, benetan zer dagoen jabetzen zara. Medikuek garbi esaten ziguten Ekain sekula ez zela esnatuko. Azkenean, onartu genuen hura betirako halaxe izango zela. Estimuluak bazituen, eta entzun egiten zuen, baina ez dakiguna da ulertu egiten zuen edo ez. Asko hitz egiten genion, isildu ere egin gabe. Ekainek han geldirik egonik ere emateko zuen gaitasuna izugarria zen. Egoera traumatikoa zen, baina hain egunerokoa bihurtu zen, ikasi egiten duzula hala bizitzen. Gure Ekain hala ez bazen egon ez ni, ez inguruko inor ez ginen izango gaur garen pertsonak. Egunerokoa

baloratzen ez ditugun gauza txikiak apreziazten irakatsi zigun.

Egoera gogor haren baitan, gauza eder asko azaldu ziren. Gure etxeko ateak beti zeuden zabalik, eta etengabea zen sartu-irtena. Etxeko zentroa Ekainen logela zen. Ba al dakizu borondatez zenbat jende pasatu zen gure etxetik? Sinestezina da jendea nola ahalegindu zen Ekaini laguntzen. Gure amak beti esaten du ez zela ailegatu denei behar bezala eskertzea.

Nik 18 urte nituen anaiak istripua izan zenean, eta gurasoek argi esan zidaten nahi nuen guztietan egoteko anaiarekin, baina Ekain zaintzeko edo txandak egiteko obligaziorik ez nuela. Istripuan semea hil zitzaientz guraso bat baino gehiago etorri zen gure etxera, eta esaten ziguten: 'Zuek sikiera semea agurtzeko aukera duzue'. Egia galanta da hori. Baina, bestalde, gure aldetik oso egoista izatea ere bada. Izan ere, ez genekien Ekainen buruan zer zegoen. Agian berak bere baitan hiltzea nahiko zuen, eta gu, berriz, hari bizirik eusteko borrokan ari ginen. Istripuan bertan hil izan balitz, orain, agian, okerrago eta dena egongo ginatke. Dolua ere pasatu beharreko prozesua da, eta ez da egiten askotan; ez zaigu uzten negar egiten. Zentzu horretan, koman egondako prozesu horrek asko lagundu zigun doluan. Heriotzaren itzal hori beti dago hor, eta eguna ailegatu zenean prestatuta gauden. Azken asteetan harraro zegoen Ekain, eta aitak hala esaten zuen: 'Hau uste diat alde egiteko prestatzen ari dela'. Joan adi bakean!', esan genion. Bost urte koman egin ondoren, txixako infekzio baten ondorioz hil zen, eta egun batetik bestera bukatu zen etxeko sartu-irtena.

Inongo gurasok ez luke merezi semea edo alaba hilda ikustea. Baina pasatu egiten dira, eta pasatuko dira berriz ere. Ekainen hiletan egin nuen nik negar lehen aldiz, bost urtean. Orain negar askoz ere naturaltasun handiagoarekin egiten dut. Emozioak landu egin behar dira, eta zentzu horretan zertxobait landu dut.

Errepide istripuan jendea hiltzen denean berriro egiten zaio norberari min hori guztia. Gazte jendea kontzientziatzeko Bizitzaz Blai bezalako egitasmoak antolatzea oso ondo iruditzen zait. Batez ere, mutilak kontzientziatzeko. Izan ere, mutilok badugu kotxeetiko eta abiadurarekiko zera hori. Gure etxera makina bat etorri izan balira, ene, hartuko zuketan espabilatu ederra! Asko inpresionatzen zuen mutil gaztea ohean hala ikusteak. Oso argazki gogorra zen.



**ARANTXA LIZASO**

||| **Adina.** 57 urte. ||| 2000ko ekainaren 17an moto istripua izan zuen semeak 17 urterekin, eta gurpil-aulkian dago.

**“Bizia guztioi aldatu zaigu”**

“Sanantonioak ziren Errezilen, eta Benta Berri pasatu eta hurrengo bihurgunean moto istripua izan zuen. Goizeko 03:00etan deitu ziguten etxera, Jonek ezbeharrak izan zuela eta Zumarragara zeramatela abisatzeko. Senarra joan zen ospitalera, eta ni etxean geratu nintzen zazpi urteko beste semearekin. Segituan deitu zidan senarrak esanaz Jonek ez zituela sentitzen hankak eta Donostira zeramatela. Seme txikia nire gurasoekin utzi, eta 06:00ak aldera Donostiara joan ginen. Guardiako medikuek zuzentzeko esan ziguten ez zizkigutela ate guztiak itxi nahi, baina larria zela. Zerbikaletako azken ornoa hautsia zuen. Astelehen goizean, ordea, medikuak esan zigun semea ez zela gehiago ibiliko, eta ziur asko Toledora eramango zutela. Asteazkenean ebakuntza egin zioten, eta ornoa finkatzeko txapa bat jarri zioten. Luze joan zen oso. Senarra lur jota zegoen, eta nik ez dakit

nondik atera nituen indarrak. Ebakuntzatik sedatuta atera zuten, eta ostiralean Toledora eraman zuten. Seme txikia zaintzailearekin utzi eta Toledora joan ginen senarra eta biok. Paraplegikoan ospitalean sartu, eta pentsatu nuen: ‘Nora etorri gara?!’. Hura koadroa! Ondoena zegoena bi makulurekin herren zegoen. Toledon sei oheko ZIUa dago, eta haietatik bost 17 urteko mutilak ziren. Haien gurasoekin hartu-eman egin genuen. Lau bat egunez sedatuta egon zen Jon. Pixkanaka arnagailua kendu zioten, eta bere kabuz arnasa hartzen hasi zen. Arazorik handiena flemak kanporatzeko zuen, ez baitzuen horretarako indarrak, baina fisioterapeuta baten laguntzarekin trakeotomia egitekin libratu zen.

Esnatu zenean, inork ez zion esan tetraplegiko zegoela. Inguruan zituenak ikusita bera jabetu zen zer egoeratan zegoen. Jonek bularretik behera ez du mugimendurik. Eskuak mugitzen ditu, baina hatzak ez, eta behatzekin pintza egin ahal izateko esku batean ebakuntza egin zioten. UZIn hamar bat egun egin zituen, eta, gero, plantara eraman zuten. Zortzi hilabete egin zituen Jonek han, eta nik lau, batere Azpeitira etorri gabe. Hasieran, logela bat alokatu genuen sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Gero, asteburuetan pixkanaka ospitaletik ateratzen hasi zen, elkarbitza nolakoa izango zen probatzeko, eta luzerako kontua zenez, senarrak eta biok lanetik baja hartu eta etxabe bat alokatu genuen. Oso gogorra izan zen. Seme txikia hemen, gu han. Irailean senarra lanera itzuli zen, eta ni han geratu nintzen. Astea lanean pasatu eta asteburu pasa joaten zen senarra Toledora, trenez. Otsailean alta eman zioten, eta karnaballetarako hona etorri nahi zuen. Txikiteo Elegante egunean trajea eta gorbata jantzita

atera zen, gurpil-aulkian. Baina arratsalde erdi aldera etxera erretiratu zen, gurpil-aulkian egoera hartan kalean ez zegoela ibiltzerik eta. Enparan kalean udal babeseko etxabea erosi genuen eta Jonen beharretara egokitu genuen.

Jon ez zen etxetik ateratzen, eta jakin genuen Errioxan, Logroño ondoko Lardero herrian, tetraplegikoentzat egokitutako zentro bat zegoela, eta eskaera egin eta onartu egin zuten. Hasieran, asteburuetan Azpeitira ekartzen genuen, baina han lagunak egin zituen eta asteburuetan ere zentroan geratzen hasi zen. Arnedoko neskalaguna ere egin zuen. Kristalezko hezurren gaitza zuen hark. Ilusioz, elkarrekin jarri ziren bizitzen. Mariak izugarri aldatu zuen Jon. Hobera, noski! Neska goizetan lau orduz Aspaceko bulego batera joaten zen lanera, eta hura etxera etortzerako Jonek bazkaria prest izaten zuen. Baina, neumokoko birusaren ondorioz hil egin zen, 2013ko urriaren 14an. Elkarrekin lau bat urte egin zituzten, eta Jon lur jota utzi zuen Mariaren heriotzak. Jonek ez zuen nahi, ordea, Azpeitian bizi, eta berriro Lardero zentrorako eskaera egin zuen eta otsailean hara itzuli zen. Jonen helburua zen zentroan inoren laguntzarik gabe bere kabuz oheratzen ikastea. Goizean neska bat etortzen zaio laguntzera, garbitasuna eta egiteko beti beharko du norbait, baina ohera bakarrik erretiratzeko helburua lortu zuen. Orain bakarrik bizi da, Mariarena eta biena zen etxean. Beste tetraplegiko bat, Ruben, inguruan bizi du, eta beti batera ibiltzen dira.

Negar asko egin digu urte guztiotan, eta bizia guztioi aldatu digu Jonen istripuak, baina Jon han gustura bizi dela ikusita, gu ere pozik gaude.\*

**AZKOITIA**  
ERLOJU  
KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**IRENE ALTUNA**  
LOAGENDA  
Lainla-Ride 28 Tel: 943 81 51 87  
www.pelajarrensia.com

Esperientzia duen higienista behar dugu gure Azpeitiko hortz-klinikan lan egiteko  
Interesa izanez gero bidali CV  
[innovaazpeitia@gmail.com](mailto:innovaazpeitia@gmail.com) helbidera

INNOVA  
LABORATORIO

*“Il Partigiano” azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egingako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.*

**ETXERA ERAMANGO DIZUGU**

**Telefonoa**  
**943 08 09 13**

Ildefonso gurrutxaga, 12 behea

**IL PARTIGIANO**  
Etxeko Pizza

# Herritik hezten

Azpeitia Herri Hezitzailea prozesua martxan jarri nahi du udalak. Proiektuaren helburua da “herriarentzat lan egitetik herriarekin lan egitera” igarotzea. 📎📷 Olaia Iraola

**A**zpeitiko Udalak, OinHerri egitasmoaren laguntzarekin, Herri Hezitzailea izeneko herri mailako prozesu hezitzailea jarri nahi du martxan herrian. Iazko irailean, Joxe Mari Agirretxe *Porrotx* eta Amaia Etxabe Txatxilipurdi elkarteko kidea izan ziren Herri Hezitzailearen inguruan hizlari Azpeitian. Ordutik elkarlanean ari dira Leire Goenaga Azpeitiko Udaleko zinegotzia, Joxe Mari Auzmendi Hik Hasi egitasmo kidea eta Maite Azpiazu Jauzika Heziketa elkarteko kidea eta prozesuaren dinamizatzailea. Herri batek hezitzailea izateko, “hezitzailea izateko asmoa, nahia eta intentzioa” izan behar ditu, eta Azpeitiak badituela azaldu dute. Hori horrela, prozesuaren xede nagusia “herriarentzat lan egitetik herriarekin lan egitera” igarotzea dela azpimarratu dute.

“Denok egunero egiten ditugun jardunekin hezi egiten dugu gure ingurua, eta, aldi berean, inguruko jardunek gu hezi egiten gaituzte”, azaldu du Goenagak. Pertsona batek jaiotzen denetik hiltzen denera arte egiten duen guztiarekin hezten da, bere ustez: “Ez dute familiek edo ikastetxeek soilik hezten; heziketa denon ardura da, udalarena zein herriarena”. Hori horrela, norabide edo balore adostu batzuetan heztea izango da gakoa, horrela, eguneroko bizitzan elkarrekin herri hobe bat marraztuko dute. “Azpeitia hezten duen herria nahi dugu izatea”.

OinHerri Euskal Herriko Herri Hezitzaileen



Joxe Mari Auzmendi, Maite Azpiazu eta Leire Goenaga. || Olaia Iraola

Sarea da, eta herri bat hezitzailea izateko, honako oinarri hauek bete behar dituztela dio: haurtzaroren kultura propioa badela onartzea eta jolasaren garrantzia baloratzea; benetako parte hartzea sustatzea, haurra subjektu aktiboa dela onartzea; baloreetan oinarritutako aisialdi hezitzailea bultzatzea; herri euskalduna izatea; anitza eta parekidea izatea; herriko ingurumen natural eta kulturala berreskuratzea eta zaintzea, eta komunitate sarea indartu eta auzolana bultzatzea. “Denok nahi dugu herri horretan bizi, denok nahi dugu balore horiek ardatz dituen herri batean bizi, baina horretarako herritar guztiek jarri behar dute zerbait”, adierazi du Auzmendik, OinHerriko kideak.

Goenagak, Auzmendik eta Azpiatzuk azaldu dutenez, Azpeitian balore horiekin bat egiten duten dinamika asko garatzen dira, eta herritar orok jar dezake bere alea prozesuan, bakoitzak bere buruari honako hau galdetuta: “egin al dezaket Azpeitia herri euskaldunagoa, parekideagoa, anitzagoa edo parte hartzaileagoa?”. “Guztionez egokiak izango



diren herriak nahi ditugu”, adierazi du Auzmendik, eta honako hau erantsi du Azpiatzuk: “Gu ez gatoz esatera ekintza gehiago egin behar ditugula; baizik eta jada egiten ditugun ekintzen inguruan hausnartu behar genukeela. Batez ere, beraien burua inoiz hezitzaile moduan ikusi ez duten eragile horiek animatu nahiko genituzke”

### **Maiatzaren 6an, jardunaldiak**

Prozesuari hasiera emateko, Azpeitia Herri Hezitzailea izeneko jardunaldiak antolatu dituzte maiatzaren 6rako. 09:00etan hasiko dira saioak eta Lorea Agirre OinHerriko kideak Herri Hezitzailearen filosofian sakonduko du. Azpeitian dagoeneko filosofia horrekin bat egiten duten hainbat egitasmo gertutik ezagutuko dituzte gerturatzen direnek.

Kultur mahaia, Azpeitiko Udala, Jauzika Heziketa elkarteak, Xj auzolanean edota herriko ikastetxe guztietako hainbat esperientzia ere aurkeztuko dira jardunaldietan. Euskal Herriko beste hainbat txokotan egiten diren ekimenek ere tartetxo bat izango dute, baina antolatzaileek jakinarazi dutenez, jardunaldi horien helburu nagusia “jada Azpeitian egiten dena balorean jartzea” izango da, dagoeneko herrian norabide honetan eginda dagoen lan handia ezagutzera emanda. Horrez gain, herriko eragileek eta norbanakoek gaiaren inguruan martxan jarri ditzaketen pausoen inguruan aritzeko aukera izango da, 12:00etan hasiko den kafe-tertulian.

### **“Parte hartzea zer den ez dakigu”**

Herri Hezitzaile izateko beharrezko baloreetatik zailena parte hartzea dela azpimarratu

||| “Parte hartzea da hasieratik bukaerara arte prozesuan egotea; prozesua jaiotzen denetik heriotzara arte”

||| “Ez gatoz esatera ekintza gehiago egin behar ditugula; baizik eta jada egiten ditugunen inguruan hausnartu behar genukeela”

**MAITE AZPIAZU**

Prozesuko dinamizatzailea

du Azpiatzuk: “oso konplexua da”. Bere arabera, gaur egun, parte hartzearen kontzeptua ez da ondo ulertzen: “Ez da hiru aukera eman eta bat hautatzea. Parte hartzea da hasiera-hasieratik bukaerara arte prozesuan egotea; prozesua jaiotzen denetik hiltzen dena arte”.

Hasieratik parte hartzen ez badu herritarrek, beti egongo da gizartearen zati bat aurka, dinamizatzailearen iritzi. “Jendeak parte hartzeari beldurra dio, eta ez zaio beldurrik izan behar, oso positiboa baita”. Balore horretaz gain, anitzasuna sustatzea ere zaila dela iruditzen zaio: “Pertsona bakoitza bakarra da eta ez dago pertsona horren berdinek. Denok daukagu kolore bat eta denok ematen diogu kolorea herriari, eta ez atzerritarrek bakarrik”.

### **Aterpe berean, mila kolore**

Koloreetako aterkia da Herri Hezitzailea izateko erabili duten ikurra. Kolore ezberdinak ditu, eta kolore bakoitzak balore bat du atzean: “moreak feminismoa, urdinak ingurumena edota horiak euskara, besteak beste”. Herrian balore horien azpian lanean ari direnei aterpe komun bat jartzea da prozesuaren helburu nagusia, prozesuan parte hartzen ari diren kideek jakinarazi dutenez.

Azpiatzuk azaldu duenez, prozesua osatzen duten eragileak hiru zatitan banatzen dira. Alde batetik, hezkuntza egongo litzateke: “Hezkuntza formala [ikastetxeak] eta hezkuntza ez formala [aisialdia, gaztelekua, kirola...]. Beste aldetik, Azpeitiko Udala egongo litzateke. Hirugarren atala herrigintzak osatuko luke, eta herrian urtean zehar lanean ari diren eragileek osatzen dute, “urtean behin edo egunero herrigintzan parte hartu dutenak”. Hiru hanka horien artean, ordea, espazio bat gelditzen da, eta horri Herri Hezitzailea deitzen dio prozesuaren dinamizatzaileak; izan ere, prozesua osatzen duten eragileek “balore antzekoetan” pentsatzen dute.

### **Amaierarik gabeko prozesua**

Goenagak azaldu duenez, Herri Hezitzailea prozesuak ez dauka amaierarik: “Amaierako emaitzarik gabeko prozesu bat da Azpeitia herri hezitzailea izatearena; etengabe hobetzen joan daitekeen ibilbidea baita”. Haren arabera, herria beti joango da eraldatzen, eta prozesuak ez du emaitza kuantitatibo bat emango, “baina elkar kutsatzen eta areagotzen diren perretxiko txikiak jaiotzen ikusiko ditugu guztion elkarlanaren ondorioz”.✳

# Bi punturen arteko bidea

Joxan Artze eta Carmiña Dovala artisten poesiak eta irudiak uztartuta dantza ikuskizuna eskainiko du Ibarako Alurr Dantza Taldeak. Hitzordua hilaren 8an dute, Soreasun. 🍷 Ainitze Agirrezabala

**B**i arte diziplina eta bi artista ardatz dituen *Bi punturen artean* ikuskizunaz gozatzeko parada izango da hil honen 8an (22:00), Ibarako Alurr dantza taldearen eskutik.

Joxan Artze eta Carmiña Dovala artistek puntuen, lerroen eta bideen inguruan egin dute jolas, eta bataren poesiak eta bestearen irudiak elkartuko ditu Alurr dantza taldeak, Aiert Beobideren gidaritzapean. Horretarako, dantza tradizionalak, klasikoak eta garaikideak uztartu dituzte eta alderdi guzti horiek euskal musika, erritmo eta jantzieta eraman dituzte.

## 22 urteko ibilbidea

Ibarako Alurr Dantza Taldea 1995. urtea geroztik, dantza tradizionalaren irakaskuntza oinarri

### ||| DATUAK |||||

||| **Zer.** 'Bi punturen artean' dantza ikuskizuna.

||| **Eguna.** Apirilak 8 (zapatua).

||| **Ordua.** 22:00.

||| **Tokia.** Soreasu Antzokia.

||| **Antolatzailea.** Alurr Dantza Taldea.

hartuta proiektu pertsonala erazten joan da eta nortasun berri-tzailea lortu dute.

Bi hamarkada baino gehiagoko ibilbidean hainbat ikuskizun taularatu ditu Alurr taldeak: *Sua* (2008), *Oinazez* (2010) edo *Izanak Dirau 1512* (2012), esate baterako. Taldeak bere lanak Euskal Herrian ez ezik atzerriko hainbat herrialdetan ere aurkeztu ditu.\*

### ||| 'BI PUNTUREN ARTEAN' IKUSKIZUNA |||||

**90** minutu. Hala iraungo du dantza tradizionalak, klasikoak eta garaikideak uztartuko dituen ikuskizunak.

**8,10** euro. Egunean bertan ez ezik, *Kulturaz.eus* webgunean eskuratu daitezke sarrerak aurrez.\*

### ||| BESTERIK |||||

## 1 Dantzalekua Sanagustinen

Angel Oiarzabal dantza irakasleak gidatuta, hilean behin dantzazaleentzat zabalik izango da kulturgunea. Salsa, bachata, kizomba eta txaxa-txaxa doinuekin egingo dute dantza bertaraten direnek. Hurrengo hitzordua maiatzaren 5ean izango dute.

||| **Eguna.** Apirilak 7 (ostirala).

||| **Ordua.** 22:30. ||| **Tokia.**

Sanagustin kulturgunea.

||| **Antolatzailea.** Efefefefee.

## 2 Pupu eta Lore, zuzenean

Haurrek eta aitona-amonek elkarrekin jolas egin dezaten propio sortutako Imanol Urbietaren kantuek dituen oinarri 'Pupu eta Lore, haizearen herrira' ikuskizunak. Ekain Iburguren azpeitiarrak hezurmamituko du Lore.

||| **Eguna.** Apirilak 29 (zapatua).

||| **Ordua.** 17:00. ||| **Tokia.**

Soreasu.\*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.eus/agenda](http://uztarria.eus/agenda)



'Bi punturen artean' ikuskizuneko argazki bat. ||| **Allur dantza taldea**



# Lotsak agerian

**A**nimalia eta abereekin nagusi kupidagabe izaten irakatsi ziguten, piztiarekin pizti. Txoriak harrikatu, zakurrak ostikotu, narrastiak xerratu eta edozer gauzaren habiak zirikatu eta birrindu. Su, fu, tiro, kolpe... jolasek ez zuten kupida edo mirazko inolako mugarik. Pertsonetikiko tratuan ere ez zegoen gaur, zorionez, daukagun eskubideen kontzientziarik eta guztion balio berdintasuneko aldarrikapenik.

Bazter askotan arratoiak harrapatzen zituzten. Baziren zepo batzuek, kaiola gisakoak, zeukaten kakoan gazta azal puska bat kateatuz arratoiak harrapatzen zituztenak. Arratoiak, baina bizirik. Gazta puskarri heldutakotan, hozkadak eragiten zion ateari eusten zion pertika txiki bati eta atea erori egiten zen. Arratoiak bizi-bizirik gelditzen ziren bertan.

Kaiola hori herriko mutikooi esku uzten zигuten, neskek primariotasuna jolas sibilinoagotan erabiltzen zuten, eta jolas egiten genuen harekin. Herriko kale etxetan zeuden arratoi zakurretako bat hartu, Pittin izaten zuten izena beti, eta plazara joaten ginen. Plazaren erdian jartzen zen mutikotako bat kaiola lurrean jarrita eta haren atakari helduta. Zakurra haren inguruetan hortzak estutuz eta zaunka aurreko hotsak ateraz. Mutiko guztiok, plazako ertzak zaintzen jartzen ginen, arratoiak ihesian jo ostikoz eta plaza barrura itzul arazteko. Ez ziren iristen. Ataka jaso eta ateratzen zirenean Pittinek ibilian harrapatzen zituen, krausk egin lepa hezurrean eta bertan akabatzeke.

## Zezenketak

Hautzaro hori edo antzekoa izan dugunok zezenketa errefinamendu gorena kontsideratzea ez da harrizkoa, baldin eta inolako beste erreflexio edo burutaziorik egiten ez badugu. Hauek ere zibilizatu ahala, zibilizatuko gara inoiz!, inoizkoan jolas haiek bezala desagertuko dira. Lehen esanagatik ere aprobetxatu beharko dut parada, Azpeitian herria zezen-



|||||||ramon etxezarreta|||

|||Ahal nuen umilen zerbait erantzuten saiatu nintzen: 'Hace mucho que nada tengo que ver con esas cosas'

ketekin identifikatzeko ahalegina baino gauza gutxi egongo dira atzerakoiagoak.

Ez zuen hala pentsatzen joan zen egunean Donostiako autobus batean agurtu ninduen emakume borondate oneko hark. Elkarri, ez baikara asko ezagutzen, agur keinu sotil bat egin ondoren jaitsi zen emakumea. Erosketak eta gainerakoak lurrean utzi zituenean berriro agurtu ninduen autobus barrura.

– ¡Ah! Se me olvidaba. Gracias por permitir que haya toros–, esan zuen batere ironiarik gabe.

Autobuseko azkeneko lerroko erdi-erdiko jarlekuan eserita nindoan. Bidaiari guztiek, txoferrak ezetz uste dut, jiratu zuten burua eta jarri ziren niri begira. Lotsa guztiak neure bizkarrera bota eta, atea ixten ziren bitartean, ahal nuen umilen zerbait erantzuten saiatu nintzen.

– Hace mucho que nada tengo que ver con esas cosas.\*



HITZ GEZIDUNAK

	Landare arantzatsua		Etxekotuta-ko animalia		Euskal sindikatua		Espainiako komunitate		Gizon izena
	Atabal jotzaile		Sortu zintuena		Neguko jantzia		Misera		
	Deitura								
Jaiki, altxatu		Babesgune				Areagotze-ko at-zizkia			
Izena		Donostiako auzoa				Galderetan			
					Egoki				
					Hazama				Gari sorta
Uretan hondoratu gabe					Atsegina				
Aranak					Ahuntzaren ar				
							Nitrogenoa		Kontso-nantea
							Alderdi troskista		Ikastaroen hasieran
Jardun				Kolpea					
ETAko militante				Zibaren erdian					
							Fruitu tropikal		
							Bokala		
Urarioaren ikurra		Nazioa							Bokala

Egilea: Luma

\* Besteak beste, irakasle azpeitiarra

SUDOKUA

3		1		9			4	
2					1		7	
	7	9					6	
		4			2		5	
8								9
	2		8			4		
	3					6	8	
	1		7					3
	4			8		1		7

# IRAUR

## MASAJE - OSTEOPATIA


Euzkialdea, Enxebel 13, 4lea  
Mug. 676 299 300

- Kirol Masajeak
- Drainadura linfatikoa
- Oinetako erreflexologia
- Masaje terapeutikoak

- Osteopatia
- Estrukturala
- Digestiboa
- Garezurrekoa

### |||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Apirilak 24 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiak emandako ardo sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jeroqlifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



### |||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

1 EGIN BEHARREKOA

2 KLASEAN IZAN DA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

A	●	V	I	R	R	E	B	V	●	U	●
O	K	O	K	●	E	D	I	K	V	T	E
A	I	D	L	V	A	K	U	●	R	A	●
Z	●	N	●	K	V	N	V	A	R	A	O
A	I	V	L	V	●	R	I	E	G	I	●
●	O	K	A	R	E	●	M	E	A	I	J
O	G	V	●	O	R	V	A	B	A	●	H
R	V	A	B	V	N	E	A	M	A	●	
I	A	R	L	V	A	B	A	T	A		
●	V	●	E	●	V	●	O	●			

SUDOKUA

7	6	1	3	8	2	5	4	9	8	6
3	2	5	6	4	7	8	1	6		
4	8	4	5	6	8	7	3	7		
6	1	4	9	7	8	3	2	5		
9	3	2	1	5	4	7	1	9		
8	5	8	2	7	5	6	3	6		
1	9	4	3	6	2	7	5	6		
1	6	1	5	2	8	3	6	1		
5	8	6	4	3	1	9	7	5		
2	7	8	4	2						

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Teoria berriak      2 Angeluar

|||UZTARRIAREN EKAINEN LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Olatz Lasa  
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 192. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian lehiaketaren irabazlea, Kutxilloren produktu sorta eskuetan duela.

**Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak**

Etxeko berezitasuna:  
**Ezkur urdalazpiko Iberikoa**

Eñaut: 656 79 14 19  
Oier: 618 24 01 73  
kutxillo@gmail.com  
Damaso Azkue 6

## ELKARRIZKETA | Maddi Esnaola (estetika ikaslea)

# “Helburua da etorkizunean nire estetika zentroa irekitzea eta bertan lan egitea”

Estetika ikaslea da Maddi Esnaola (Azpeitia, 1997) Zarauzko Monte Albertia zentroan, eta SpainSkills txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuen martxoaren 4an, Madrilén. Lortutako emaitzez, etorkizuneko asmoez Lanbide Heziketa gutxien dutenen iritziez solasean aritu da. **Zer da irabazi duzun estetikako SpainSkills txapelketa?** Estetikako formazio profesionalan ikasten duguna baloratzen dute sariketan. Lan egiteko modua, bizkortasuna... gauza asko izaten dituzte kontuan, baina batez ere eurek jarritako probetan egindako lana da saritzen dutena. Euskal Herriko eta Espainiako autonomi erkidegoetako estetikako ikasleek hartzen dute parte. Gehienez, 23 urteko ikasleek har dezakete parte, eta lan esperientzia askorik ez duten parte-hartzaileak izan behar dute. **Zer lan egin duzu txapelketan?** Aurreneko egunean txapelketako instalazioak ezagutu genituen, eta genituen zalantzak argitzeko epaimahaiarekin bildu ginen. Egin ditudan probei dagokionean, berriz, denetarik egin dut: de-

pilazioa zera epelarekin, azazkal faltsuak, gorputzeko tratamendua pedikurarekin eta fantasiazko esmaltearekin, aurpegiko tratamendua, Lomi lomi izeneko masaje hawaiarra, makilaje arabiarra eta horren gaineko fantasia transformazioa, esaterako.

### Zer dela eta hasi zinen estetika ikasten?

Txikitatik gustatu izan zaidan gauza da. DBH bukatzean ez nien zer egin, zalantzan nengoen ileapaindegi ikasketak edo estetika ikasketak egitearen artean. Ate irekietara joan nintzen, eta estetika gehiago gustatu zitaidan. Hala, estetikarekin hasi nintzen, eta oso gustura nago. Gainera, txapelketa honek erakutsi dit estetikala dela nire mundua.

### Zer esango zenieke Lanbide Heziketa gutxien dutenei?

Sarri entzuten da formazio profesionalaren hautua egiten duten gazteak ikasi ezin duten ikasleak direla, edo ez direla unibertsitate-ra joaten diren ikasleak bezalako azkarrak. Baina nik ez dut bat egiten ikuspuntu horrekin. Guk hartutako erabakia da, eta unibertsitate-ra joaten direnak bezala, ikas-



tea dugu helburu. SpainSkilleko sari banaketan, esaterako, sukaldari ospetsu batek hartu zuen hitza, eta hark esan zigun lanbide heziketa dela etorkizuna. Nik ez dut nahi unibertsitateko ikasleen lana gutxietsi, baina bi bideek leku berera eramaten dutela uste dut: lan mundura.

### Zein dira zure asmoak?

Ikasketak amaitu eta lan esperientzia hartzea gustatuko litzaidake, ikusteko zer den estetika zentro batean lan egitea. Helburua da etorkizunean nire estetika zentroa irekitzea eta bertan lan egitea.\*

## EFEMERIDEAK

# 1974

**Gregorio Posadas Zurrón.** Guardia zibila tiroz hil zuten.

# 1979

**Luxiano Lazkano.** Alkate zela Frankismoaren ondorengo lehenengoz udal demokratikoa osatu zuten.

# 2011

**Julian Barrenetxea.** Izen hori jarri zioten Parrokia ondotik Erdi kalera doan kantoiri, musikariaren heriotzaren 50. urteurrenean.

✂ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.\*

## BIDEOAK



‘Bota lasai!’ kale inkesta.\*

**KIMU BAT GARDEN**

KIMU BAT 25 urte  
Urrestila bidea. Azpeitia  
943 15 00 85



# Japonia

**J**aponiak betidanik interes handia sortu dit, elikaduraren inguruan duten ardura dela eta. Herralde garatuen artean Japonia da aldearekin gizentasun indize txikiena duen lurraldea: %3.5. Alemaniak %21 du; Frantziak %22, eta AEBek %33,6.

Arrakasta horren atzean, gizentasunaren aurrean jarrera konprometitua duen gobernuak dago. Elikadura programan eta osasun hezkuntzan asko inbertitzen duena eta bi lege oso erangikor dituena.

Shuku Iku legea da bat eta etoek txikitatik elikadura heziketa jasotzen dute adituen eskutik. Bestea Meteo legea da, eta horren helburua da helduen pisua kontrolatzea, eta 40 eta 75 urte bitarteko helduak gerriondoa neurtzera (arriku kardiobaskularrekin erlazionatua) animatzen dituzte urtero, eta langileek egun bat izaten dute urtean, neurketa egiteko. Neurketa horiek osasun administrazio publikoak eta enpresek bultzatzen dituzte. Neurketa ez bada osasuntsua, enpresek animatzen dituzte langileak laguntza sesioak hartzera eta kirola egitera.

Japoniarrentzat baratzeek leku garrantzitsua betetzen dute beraien bizitzan, garrantzia handia ematen die janari tradizionalari, garaikoari eta bertakoari.

Uste dut badugula nora begiratzeko arrazoi pisutsua. Ah, eta nora ez!.\*



aitziber aizpuru

# M. ANGELES-JUAN M. AMENABAR fruta-saltzaileak



## 1. Fruta bat?

Sagarra. Hori salduz hasi ginen; 10 klase ditugu orain.

## 2. Bertakoa, kanpokoak?

Bietatik. Kanpotik ekartzen dugu bertakoa gatztean.

## 3. Fruta preziatuena?

Sagarra, laranja, platanoa...

## 4. Estimazio gutxien?

Itxuraz bernizatuta daudela diruditen sagarrek.

## 5. Salmentarako zer bide dituzue?

Azkunekoaz gain, Zarautzen eta Zumaian denda bana ditugu, eta tabernetara, saltokietara eta jatetxeetara ere saltzen dugu.

## 6. Ospea hartzen doaz...

Kiwi eta kalabaza.

## 7. Jendea irrikaz dago...

Gereziak jateko.

## 8. Zer fruta dituzue Leridako lurretan?

Sagarra, txermena, brinoa, melokotoia eta paraguaioa.\*

Ainitze Agirrezabala

**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA

Eusko Horia, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel: 943 15 16 40

Lizentziatua  
943 15 16 40

**ostadar optika**  
OPTIKAS - OPTOMETRISTAS

Jose de Arretxe, 17  
Tel. 943.810664  
AZPEITIA

Jose Ondo, 28  
Tel. 943.850445  
AZKOTEA

**IKA**  
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 645 12 02 71  
ikaargi@lanak@gmail.com www.ikazistemak.com  
20730 AZPEITIA

**Alar**  
mertzeria

Lekolako lanazio Hiribidea, 9  
Tel: 688 81 87 78

**uba**  
abokatuen bulegoak

Aholkulariaren bulegoak  
Lanaren bulegoak  
Gestioari lanak

Finkoen administrazioak  
Gestio inmobiliarioak

Tel. 943 157 121 Fax: 943 157 173  
Arrieta kalea, 42 - 20730 AZPEITIA

**KIRURI**  
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa: 943 81 50 88  
Faxa: 943 15 03 62

**adi**  
ARTE ETA DISEINU ESKOLA ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak (haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Arretxe kalea, 3  
943 81 28 08  
artediseinu@gmail.com  
Matrikula urte osoan zabalik

**INTZA ETXEBERRIA AGIRREZABALA**  
Fisioterapeuta - Osteopata

Tel: 608 42 21 - 94 25 445 - telefono 0 - 3670 429119

# Ipuina, zinera

30 urte beteko dira zineklubak 'Mateo Txistu' film laburra aurkeztu zuela. Taldea gorenean zegoen, eta egindako lanak fruituak eman zituen. 📎📺 Maialen Etxaniz

**B**azen behin Mateo izeneko apaiz ehiztari bat, ehizagatik guztia utzi zuena. Orduztik, harrapakinak ezin ehizatuta ibili izan zen urte luzez, eta eguraldi nahasia egiten zuenean, bere txakurrei txistuka entzun ohi zuten inguruko baserriarrek... Hala kontatzen du *Mateo Txistu* izeneko euskal ipuin zaharrak.

Istorio hori pantaila handira eramatea ideia ona izan zitekeela pentsatu zuen Agustin Arenas (Azpeitia, 1958) Azpeitiko Zine Klubeko kideak. Hilabeteetako lanaren ostean, 1987an *Mateo Txistu* film laburra aurkeztu zuen taldeak, Arenasen zuzendaritzapean.

1980. hamarkadan hasi zen Azpeitiko Zine Kluba film laburrak egiten, eta hainbat ikus-entzunezko atera zituen argitara super zortzi (8mm-ko zinta) formatuan: *Azken lamia*, *Kokles* eta *Kutsadura* lanak, esaterako. Garai haietan zineklubeko kideetako bat zen Arenas. Gustuko zuen zinea eta gustuko zituen kamerak. Fotograma artean bere saltsan sentitzen zen, eta behin *Mateo Txisturen* istorioa zinean lantzea otu zitzaion. Inspirazioa amari zor diola gogoratzen du azpeitiarrak: "Nire ama Sagatzeta baserrikoa zen. Han betitik izan dira ehiztariak, eta familiak beti izan du ehizarekin erlazio oso estua. Horregatik amak sarritan kontatzen zidan apaiz ehiztariaren istorioa". *Mateo Txisturen* ipuina "oso zinematografikoa" zela uste zuen Arenasek, eta proiektua "oso polita" izan zitekeela iritzi-

ta, zineklubeko lagunei bere asmoaren berri eman zien. Baina proposamen hark bazuen berezitasunik, Arenasek grabaketa formatua maila bat igotzea nahi baitzuen, kalitatean irabazteko. "Filma ondo egin eta grabaketa formatua maila bat igotzeko garaia zela pentsatu nuen, 8mm-ko zinta utzi, eta 16mm-koarekin probatzeko", gogoratzen du. Istorioa egokia zela uste zuen, baita momentua ere.

## Salto bat, aurrera

Zineklubeko kideek proposamena entzun zutenean, ikus-entzunezkoa aurrera ateratzea "zaila" izango zela pentsatu zutelako gogoratzen du Arenasek, ordura arte inoiz 16mm-ko formatuan lanik egin gabe baitzeuden. "Hala ere, pixkanaka, ideia begi onez ikusten hasi ziren, eta ordurako oso zehaztuta nuen gidoi teknikoa, filma planoz plano banatuta nuen eta", azaldu du Arenasek. Hark argi irudikatzen zuen bere buruan ordu erdi inguru iraungo zuen ikus-entzunezkoa, eta bi urtez aritu zen filmaren gidoi teknikoa egiten. Hala, *Mateo Txistu* laburra Arenasen buruan ez ezik, paperean idatzita ere bazegoen.

Guztiek zekiten formatu berrian grabatzeko akaldaketa nabarmenak ekarriko zituela, batez ere ekonomikoki. "Super zortzian askoz ere merkeagoa zen produkzio guztia. Zinta erosi, filmatu, errebelatu eta zuzenean muntatzen zen. 16mm-ko zintarekin, aldiz, beste mota bateko kamerak behar ziren, ne-

gatiboan filmatzen zen, eta Madrilera bidali behar zen errelebatzera. Soinu aldetik ere konplexuagoa zen", azaldu du Arenasek. Zailtasunak zailtasun, eta beldurrak beldur, formatu berrira egin zuten salto.

## 3, 2, 1... grabatzen

Kamera berria erosi, eta 1985eko abenduan ekin zion klubak *Mateo Txisturen* grabaketa lanei. "Taldea osoa aritu ginen lanean, guztiok jarri genuen gure alea, bai grabaketak presatzen eta baita filmatzen ere. 30 lagun inguru ginen, eta batzuetan kanpora irten behar izaten genuen hainbat eszena grabatzera", gogoratzen du Arenasek.

Dozenaka herritarrek hartu zuten parte ekoizpenean. Boni Arregik hezurmamitu zuen Mateo Txistu, Pako Aristik mendizale-argazkilaria eta Pilar Aizpitartek bentako anderea. Azkoitiko zaharren egoitzako emakume talde izugarria ere prest agertu zen aktore lanetarako. Pio Mendizabal zen grabaketan erabili ziren txakurren jabea eta haietaz arduratu zena. Zineklubeko hainbat lagunek eta Joxe Ramon Iburgurenek Errezilgo Migel Deunaren ermita goitik behera txukundu zuten barruko eszenak grabatu ahal izateko; soinu eta musika lanetan Agustin Madrazo, Joxean Azpillaga eta Jose Luis Frantzesena aritu ziren.

Filma grabatzeko lekuarekin arazoak izan zituzten. Izan ere, denboran 400 urte atzera



Pepe Azpiazu, Agustin Arenas eta Boni Arregi, 'Mateo Txistu' film laburra grabatzen. ■ Agustin Arenas

egin, eta orduko ermita bat irudikatu nahi zuten. Arrazoi ezberdinengatik, lekua bilatzea "zaila" egin zitzaiela adierazi du zuzendariak: "Gipuzkoan behintzat zaila zen guk nahi genuena bilatzea. Ia leku guztietan zeuden telefono kableak, hormigoi zatiak edota posteak". Orduan Internetik ez zegoenez, laguntza bila liburuetara jotzea ohikoa zen, eta hori egin zuten Arenasek. "Nafarroako ermiten inguruko liburu bat lortu nuen. Hura kuxkuxeatzen nenbilela, Altsasu inguruan oso ermita polita zegoela ikusi nuen, baso baten erdian, eta ondo zegoela iritzita hara joan ginen".

### Abentura arrakastatsua

Dirua aurreratu behar izan zuten zineklubeko kideek, proiektua finantzatzeko diru-laguntzak berandu iristen zirelako. Ez zekiten noraino iritsiko zen ikus-entzunezkoa, ez zekiten zer nolako oihartzuna izango zuen egindako lanak, baina "zorionez harrera oso ona" izan zuela gogoratzen du zuzendariak: "Sari asko jaso genituen, Espainiako telebista autonomikoetara saldu zen, eta diru iturri batzuk ere izan zituen. Azkenean, abentura ondo irten zen". Bilboko laburmetrai festibalean euskal film onenaren saria jaso zuen *Mateo Txistuk*, eta baita Alcalá de Henaresko (Madril, Espainia) zinemaldian ere, besteak beste.

Azpeitian, 1987ko apirilaren 24an eskaini zuten aurrenekoz, Soreasu antzokian. Proiektio "monumentala" izan zela du gogoan Arenasek: "Jendetza hurbildu zen emanaldira. Ikusgarria izan zen, ikaragarria. Sentimendu asko elkartu ziren, gainera. Alde batetik, 16mm-ko zintan eginda eskaintzen genuen lehen filma zen. Bestetik, ama ikustera etorri zen, eta hori oso polita izan zen niretzat".

### Zinea egiteari, agur

*Mateo Txisturen* arrakastaren ostean, zineklubeko taldekideen artean etena egon zen. "Taldekide batzuk super zortzi formatuan grabatzen jarraitzea nahiago zuten, baina nik hurrengo pausoa eman nahi nuen, gauza berriak probatu nahi nituen. Taldea uztea erabaki nuen orduan", azaldu du Arenasek.

Klubak beste film labur bat ekoitzi zuen *Mateo Txisturen* ostean, 8mm-ko zintan. Lan hura izan zen taldearen azken laburra, eta hori amaitu zen zine ekoizpenaren ibilbidea.

Ordutik, ez du beste ikus-entzunezko pelikularik egin Arenasek, eta nostalgiaz gogoratzen ditu *Mateo Txisturen* urteak: "Oso momentu bereziak bizi izan genituen, lagun talde baten momentu gorena zen, eta aldi berean bukaera ere izan zen".\*

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erlo Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

## FARMAZIAK (APIRILA)

1-2-7-12-20-27

Beristain (Azpeitia).  
943 81 19 49

5-19-21-24-29-30

Beristain (Azpeitia).  
943 81 19 49

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Apirilaren 26an izango  
dute hitzordua, 17:00etatik  
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

### BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALETXEA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### PASABIDE BERRIA.

Herritarren segurtasuna bermatzeko, oinezkoentzako pasabide berria jarri du Landetan Udalak. Oinezkoek errepidea gurutzatzeko botoia sakatu eta berdean jartzen da epe motzean semaforoa.

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak

4-10-18-22-23-28

Aranburu (Azpeitia).  
943 81 19 49

GAUEZ, URTE OSOAN

Beristain (Azpeitia).  
943 81 19 49

3-8-9-11-26

Jacome (Azpeitia).  
943 08 02 58


6-13-14-15-16-17-25

Alberdi (Azpeitia).  
943 81 59 74

# EÑAUT OIARTZABAL

tren gidaria

“Aginduak betetzen txarrenak jubilatutak ditun”

Euskotreneko oposaketetara aurkeztu, tailerreko lana utzi, eta trebatu ondoren, trenak gidatzen ditu.  Ainitze Agirrezabala

**T**ailerreko buzoa erantzi duk trenko uniformea janzteko. Nolatan?

18 urterako hasi nindunan mekanizatu enpresa batean lanean. Gustura nengonan, baina esaten diten 10 urtean behin lana aldatu behariko genukeela, zerbait berriari ilusioz heltzeko.

**Gustura al hago lana aldatzearekin?**

Bizitzan arriskatu beharra zagon. Aita harritu hunan gehien. Ez zinan ulertzen etxe ondoko lan finkoa nolatan utz nezakeen txartel-saltzaile aritzeko hiru asteko kontratu bategatik.

**Autoarekin alderatuta, trena gidatzeak zer berezitasun dizkik?**

Treanean oharkabetzea askoz ere errazagoa dun, eta uneoro adi joan behar dinagu. Jendea pasieran ibiltzen dun trenaren ondoan, pasonibel asko zagon, eta bozina etengabe jotzen dinagu. 80 km/orduko abiadura doan trenak geratzeko 300 metro behar dizkin, eta frenoari maina hartu beharra zagon.

**Zenbat kilometro egiten dituk egunean?**

Puf! 200 inguru. Donostia-Bilbo eta Amorebieta-Bermeo lineak egiten ditinat, eta kon-tuan izan behar dun oso makal doala trena eta geltoki askotan geratu behar dinagula.

**Azpeitiak ere izan zian trena...**

Bai. Ideala hunake berreskuratzea, baina, gero, harekin bizitzen ere jakin egin behar din. **Argentinan gidari batek lan eguna bigaia erdian bukatu eta han utzi zitian bidaiariak, bide erdian...**

Entzun dinat, bai. Langile bezala halakorik egitea pentsaezina dun, baina nire ustez langatazkaren bat zitenan eta hura izan zunan turko-burua, protesta egin zinana.

**Erremontista profesionala ere izan hintzen. Zer oroitzapen dituk?**

Zortzi urte politik izan hitunan. Lagun asko egin nitinan, gustuko kirola hunan, familiakoak ere mordoia ibili gintunan. Erremontista izatearen ametsa beteta geratu dun.

**Zer lan ordutegi duk?**

Asteburu batzuetan lana izaten dinat, baina ez naun inoiz parrandazalea izan; etxezuloa naun oso, eta alde horretatik ez zaidan axola.

**Bitxikeriak?**

Debako geltokian pasonibel oso txarra zagon, eta bidaiarien trafikoa zuzentzea egokitu zaidanean, gure aginduak betetzen txarrenak jubilatutak ditun nire harridurarako.\*



1. Eñaut Oiartzabal Azpeitiko Burdinbidearen Euskal Museoa. 2. Amorebieta-Bermeo linea egiten du, besteak beste. 3. Zortzi urtez erremontista profesionala izan zen. Argazkian, Oiartzabal Hernaniko Galarreta pilotalekuan.



# 400 hitz

**H** amalau urte ditut eta lehenengo greba bizi izan dut. amak esan dit ez dela nire lehenengo greba eguna izan, ikastolan nintzen garaian ere behin baino gehiagotan, baina ez behin eta berriz eta askotan, egin zutela irakasleek huelga. aitak ez du ezer esan, gure etxean ama eta biok beste inor ez garelako. amak adoptatu egin ninduen nik bi urte ere ez nituenean, eta panamatik hona ekarri ninduen. amak ez du burua asko nekatzen, edo ez da nire galdera askori erantzuteko gauza. behin baino gehiagotan galdetu izan diot zergatik ekarri ninduen, eta berak ez du "nahi nuelako" besterik esaten, "zu ezagutu gabe ere maite zintudalako, nire barruan zer edo zerk agintzen zidalako zure ama izan behar nintzela". holakoak esaten dizkit. nik ez diot sinesten, baina baietz esaten diot, ondo dagoela, ententitzen ez badut ere ententitzen dudala, eta nola amak burua askorik nekatzen ez duen, ez dugu konbertsazioan aurrera egiten, eta jaten segitzen dugu, edo telebistan pelikula ikusten, edo begiak itxi eta lo egiten dut. baina laster etortzen zaizkit galdera gehiago burura, eta orduan kapaz naiz, baita lo berritik esnatu behar badut ere, begiak ireki eta hurrengo galdera egiteko. "eta zergatik ez dut aitarik?". "a ze galderak egiten dituzun, maitea!", esaten dit amak orduan, eta "ez nuelako gustuko lagunik topatu", erantzuten dit, "ez neskarik, ez mutilik, eta orain ez nago neska-mutiletan jolasean hasteko adinean". ez du esaten, baina ni zaintzen nahiko lan baduela esan nahi du, eta hori bai, sinesten diot, ze ikusten ditut nire lagunak institutuan, eta ez dago estudiatzeari niri hainbeste kostatzen zaion inor. alferrak hamaika dira, eta kasu honetan "hamaika" asko da, ikastolan erakutsi zidaten, "hamaika", hamaika dira zorriak baino alferragoak institutuan, edo nagiak, edo zabarrak, edo utziak, edo amamak ibiltzen dituen hitz horietako bat, institutuan erakusten ez didatena. ni ez naiz alferra, etxeko lan denak egi-



|||||||miel a. elustondo|||

|||Aitak ez du ezer esan, gure etxean ama eta biok beste inor ez garelako. Amak adoptatu egin ninduen

ten ditut, eskolan ere saiatzen naiz, baina badakit ez naizela inteligentea, hemen esaten den inteligente modukoa. baina bi begi ditut, bi belarri, eta horiek baino inportanteagoa, biologia eskolan erakutsi digute, burmuina, gure zentro neuralgikoa, eta bertan neurona mordo bat dabilela ezin geldirik, beti zer edo zer pentsatzen, hurrena zer azio egingo, zer galdera petral egingo amari, nola libratuko eskolan egiten dizkiguten galdera zailetatik. baina ez dago erraz... eta azkenean ez dakit zerk ekarri nauen honaino, amak ekarri ninduen amerikatik, hori esan dut, baina esan nahi dut puntu honetara, nik ez nuen nahi greba eguna kontatu besterik, baina bukatu zaizkit hitzak. irakasleak 400 hitzeko testua eskribitzeko agindu zigun, "azalpen testua", baina hau ez da azalpen testua, eta beste bat eskribitu beharko dut oraintxe. 418 hitz eskribitu ditut.\*



Azpeititik kanpora bizi bazara ere  
jaso zure etxean herriko berri hilerro-hilero



**uztarria**

uztarria@uztarria.com

943 15 03 58

IGANDE ETA  
JAI EGUN GUZTIETAN  
GOIZEZ ZABALIK

## GAZTA

txapeldunetan

txapelduna

MAUSITXA (Elgoibar)

ESKAITZA BEREZIA:

Bertako intxaurrak

**3,5 EURO/KG**



Entsaladarako RAF  
tomatea

- Urdaiazpikoa
- York urdaiazpikoa
- Txorizo panplona
- Txorizo iberikoa
- Xolomo freskoa
- Denetariko frutak eta barazkiak
- Garbiketako produktuak



**JAPONIA**



**KANADA**



Hauek dira antolatutako hurrengo bidaiak

*Talde txikiak*

*Irteerak Azpeititik*

*Programazio eratua*

*Gida bidaiaria osoan zehar*



**MONGOLIA**

TREKKING

